



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ATZERA BEGIRA

AURRERA EGITEKO

1990-2010

Aurreak erakusten duelako atzea zelan dantzatu

... gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bestiak.

Aurkibidea:

1.	1) Lanaren zergatia eta helburua	4
2.	2) Elgoibarko Izarraren aurkezpena	5
3.	3) Orduko egoera (1990)	7
4.	4) 20 urteotan egin duguna	10
5.	5) Egungo egoera (2010)	18
6.	6) Zer lortu dugu? Zer ez dugu lortu?	22
7.	7) Teorian bai, baina praktikan?	41
8.	8) Etorkizunari begira	50
9.	9) Lanbidea ala bizibidea?	56
	Eranskinak	58

1.- Lanaren zergatia eta helburua

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak azken 20 urteotan egindako lanaren balorazioa jasotzea da proiektu honen helburu nagusia. 1990ean ekin zion elkarteak bigarren etapari, eta, harrezkero, hamaika ekintza, programa eta proiektu prestatu eta martxan jarri ditu. Baina, zer lortu dugu? Elgoibar euskaldunagoa izateko ahaleginean, zer irabazi dugu Elgoibarko Izarrak egindako lanari esker? Galdera pisutsuak dira. Erantzunak, berriz, ez dira errazak, baina saiatuko gara argia topatzen.

Lan hau egiteko, atzera begira jarriko gara. Lepoari buelta eman, eta orain arte egindako bideari erreparatuko diogu. Baina, kontuz, lan honen benetako arrazoia etorkizunean bilatu behar dugu-eta. Atzera begira jarriko gara, bai, baina etorkizuna ikusteko helburuarekin. Izan ere, esatera zaharrak dioen moduan, *“aurreak erakusten du atzera zelan dantzatu”*.

Euskara Elkartearen Federazioa den Topaguneak gidatuta, euskara-elkarteok gogoeta-prozesu bati ekin genion aurtengo urtarrilean (2010). Etorkizunean euskara-elkarteek bete beharreko funtzioa definitu nahi dugu, eta ia bi urte hartu behar ditugu zer izan/egin nahi dugun pentsatu eta eztabaidatzen. Bada, proiektu honek gogoeta prozesu horri ere lagundu nahiko lioke. Izan ere, nire ustez, aurrerantzean egin behar duguna erabaki aurretik, orain arte egindakoa aztertzea eta baloratzea komeni zaigu.

Anjel Lertxundiri entzun nion euskalgintzan geldiuoneak beharrezkoak direla. Egitea eta jardutea ondo dagoela, baina, noizean behin, dena geratu eta hausnartzea komeni zaigula. Ez goaz Elgoibarko Izarraren trena geratzera, baina behar beste denbora hartuko dugu pentsatzeko. 20 urte dira Elgoibarko Izarraren bigarren etapari ekin geniola, eta aurrerako bidea argiegi ikusten ez dugunez, beharbada, atzera begiratuta ikusiko dugu etorkizuna.

Amaitzeko, esan nahi dut ez noala 20 urteotako lana kolore argiz margotu eta lorez apaintzera. Ondo egindakoa eta lortu duguna harro eta ozen nabarmenduko dut, baina zorrotza izan nahi dut egiteke eta lortu gabe geratu denaren aurrean. Orain arte oker emandako pausoak identifikatu nahi ditut, aurrerantzean egin beharreko bidea erosoagoa eta emankorragoa izan dadin.

Prest bazaudete, begiak itxi eta denboran atzera egingo dugu. Bagoaz!

2.- Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea: Elgoibar euskaldunagoa izateko herri-ahalegina

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea 1963ko martxoan sortu zuten herriko hiru euskaltzalek (1). Orduko egoera oso iluna zen euskararentzat eta euskaldunontzat, eta gure herriari argi pixka bat emateko helburuarekin sortu zen elkartea. Eta elkartea hiru lagunen artean sortu bazuten ere, herritarren artean bazegoen horrelako zerbaiten beharra. Izan ere, elkartea sortu eta berehala, 1.400 bazkide bildu ziren Elgoibarko Izarraren inguruan. Elgoibartarrok euskaldun izateko daukagun borondatearen oihartzuna izan zen.

Hasiera batean, urtebete lehenago jaio zen Ikastolari laguntzea zen Elgoibarko Izarraren helburu eta zeregin nagusia (2). Baina, horrekin batera, Elgoibarren euskara eta euskal kultura sustatzeko hamaika egitasmo eta proiektu ere prestatu zituen elkartek. Denak zerrendatzeak luze joko luke, baina garrantzitsuenak edo eragin handiena izan zutenak ekarriko ditugu hona: ikastola (1962), dantza-taldea (1964), txistu-eskola (1965), gau-eskola (1966), Odeiko jaialdia (1966) (3), Aubixa aterpetxea (1973), bertsolaritza sustatzeko jarduerak (1981), Udaleko Euskara Batzordea (1987) ...

Lehen 20 urteak oso emankorrak izan baziren ere, 80ko hamarkadako lehen urteetan jaisten hasi zen Elgoibarko Izarraren jarduna eta eragina. Elkartek sortutako proiektuek bakoitzak bere bidea hartu zuen, eta seme-alabek etxetik alde egin ondoren bakarrik geratzen diren gurasoen traza hartu zuen Elgoibarko Izarrak. Ondorioz, Elgoibarko Izarrako bazkide-militanteak “*lanik gabe*” geratu ziren. Gainera, orduko pare bat bazkide-eragilek aitortu didatenez, “*militantzia politikoak gaina hartu zion euskararekiko militantziari. Ordura arte euskaldunok ez geneukan markarik edo kolorerik, baina alderdi politikoak sortu zirenean, euskaltzaleok alderdi politikoek markatutako koloreen arabera banatu ginen; gainera, euskaltzale dinamikoek alderdi politikoetan sartu ziren*”. Egoera berri hartan, zein zen Elgoibarko Izarraren egitekoa?

1983tik 1990era arteko urteak elkarteari eusten eman zituzten. Dinamikak izugarri egin zuen behera, eta elkartea ez desagertzea izan zen geratu ziren euskaltzale apurren helburua. Hala ere, hamarkada horretan Elgoibarko Izarraren lorpen garrantzitsu bat azpimarratu behar dugu: Udaleko Euskara Batzordea. Udaleko Euskara Batzordea Elgoibarko Izarraren inizatibaz sortu zen 1987an, eta hori oso garrantzitsua izan zen elkartearen bigarren etaparako.

Esan dugun moduan, 80ko hamarkadako azken urteetan, Elgoibarko Izarraren pisua eta eragina hutsaren parera jaitsi zen, eta 1990eko Batzar Orokorrean Elgoibarko Izarra bertan behera lagatzeko erabakia hartu zuten batzarrerara azaldu ziren bazkideek. Akaso, hori izan zen Elgoibarko Izarraren historiako unerik kritikoena. Baina, zorionez, pare bat bazkidek Elgoibarko Izarrari eutsi egin behar zitzaiola erabaki zuen (4). Haien ustez, Elgoibarko herriak Elgoibarko Izarraren beharra zuen, eta Elgoibarko Izarrak Elgoibarko herriarena.

(1) Felix Etxeberria, Jesus Larrañaga (+) eta Sabin Osoro izan ziren Elgoibarko Izarra sortu zutenak.

(2) Ikastola 1962an sortu zen Elgoibarren, Elgoibarko Izarra sortu baino urtebete lehenago.

(3) Elgoibarko Izarraren eskoletan zebiltzan ume eta gaztetxoek jaialdi arrakastatsua izaten zen Odeikoa. San Anton eguneko antolatzen zen beti, eta, besteak beste, dantza, txistua, kantak, balleta eta antzekoak izaten ziren haurren eta gurasoen gozamenerako.

(4) Iñasio Garmendia eta Sebas Larrañaga izan ziren Elgoibarko Izarra ezin zela desagertu erabaki zutenak.

Elkarteari eustea erabaki zutenak niregana etorri, eta ea zerbaitek egiterik bazegoen galdetu zidaten. Baietz esan nien, prest nengoela Elgoibarko Izarra *berriaren* proposamena lantzeko. Bi urte eman nituela Bergaran eta Eskoriatzan soziolinguistikaren gaineko informazioa eta formazioa jasotzen (Adorez eta Atseginez Mintegiko kide ere banintzen), eta prest nengoela, elkarte berrindartzeko, nire esku zegoena egiteko. Gainera, ezagutzen nituen Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) euskara-elkarteak zabalduak bide berriak, eta gurean ere antzerako zerbaitek egiteko gauza ginela sinesten nuen. Beraz, nire ustez Elgoibarko Izarrak hartu beharreko bidea landu eta aurkeztu nien 1990eko udan. Nire proposamena zein zen entzun ondoren, haien erantzuna baiezkua izan zen. Ondo ikusten zutela nik proposatutakoa, eta hasi egin behar ginela lanean. Hala ekin genion elkartearen bigarren etapari; oraindik ere indarrean dagoen etapari.

Eta bidea ibiliz egiten denez, guk ere egin dugu gurea, eta hauek dira bigarren etapan martxan jarritako proiekturik garrantzitsuenak (5): **BARREN** astekaria (1992), **Atxutxiamai**ka Aisialdi Taldea (1995), **GAZ-T** gazte-taldea (1998), **Gurean Bai-Elkarteak** hitzarmena (1996), **Arigera** proiektua (2000), **Gurean Bai-Merkataritza** (2002), **Toletxe taberna** (2000), euskara-errefortzuak (2004), **Kiribilka** (2004), **Kuadrillategi** (2006), eta udal-ekipamenduen gestioa (2007). Gainera, kulturgintzari lotutako hamaika egitasmo ere izan dira urteotan, eta nazio mailako hainbat ekimen eta proiektutan ere buru-belarri jardun dugu. Horiei guztiei aurrerago erreparatuko diegu sakonago.

Gure aurrekoei begira:

Aurrera egin aurretik, baina, lagako didazue gure aurrekoek egindakoari aipamen txiki bat egiten. Lan honetan azken 20 urteotako lanari erreparatuko diogu, batez ere, baina horren aurretik beste 27 urteko lana dago. Besterik ezean, pare bat kontu aitatu ditut zor diegun errespetuaren izenean. Ez dugu ahaztu behar haiek atzo izan zirelako garelako gu gaur.

- Belaunaldien arteko lotura: lau belaunaldi markatu ditugu Elgoibarko Izarraren 50 urteko historian:
 - Sortzaileen belaunaldia (1963-1973) hasierako euskaltzaleen belaunaldia da, eta ikastolaren bueltan jardun zuten, batez ere.
 - Bigarren belaunaldian (1973-1983), berriz, jende gazteagoa azaltzen zaigu, eta kulturgintza egongo da horien jardunaren erdigunean (dantza, txistua ...).
 - Hirugarren belaunaldikoak (1983-1990) elkartearen urterik makalenetan egon ziren, eta, beharbada, horregatik jardun zuten, batez ere, motibazioari eragiten.
 - Laugarren belaunaldia (1990-2010), azken 20 urteotan bizi izan duguna da, eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, euskararen erabilera indartzea izan da gure zeregin nagusia.
- Elgoibarko Izarraren lehen 40 urteetako historia jasota laga genuen 2004an argitaratu genuen *Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte*a (1963-2003) *Izarraren Hautsa 40 urtean* liburuan (1. eranskina). Bertan, besteak beste, historia honetako protagonistak azaltzen dira, eta haien ahotik jaso genuen elkartearen historia.

(5) **BARREN astekaria:** Herriko informazioa bildu/zabaldu, eta herritarren arteko komunikazioa sustatzeko proiektua. **Atxutxiamai**ka: Txikien aisialdi euskalduna sustatzeko proiektua eta taldea. **GAZ-T:** Nerabeen aisialdi euskalduna sustatzeko proiektua. **Gurean Bai hitzarmena:** Eguneroko funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena. Bi atal izan ditu: elkarte eta entitateak, eta merkataritza (dendariak eta ostalariak). **ARIGERA:** Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko proiektua. **Toletxe taberna:** Kulturgintza eta herrigintza kaletik sustatzeko proiektua. **Euskara errefortzuak:** Txikien euskara-maila hobetzeko eskolaz kanpoko programa berezia. **Kuadrillategi:** Elgoibarko gazte-koardiletan euskararen erabilera sustatzeko programa berezia. **Kiribilka:** Familia bidezko transmisioan eragiteko egitasmoa. **Udal ekipamenduak:** ludoteka, gazteleku eta Gazte Informazio Bulegoa.

3.- Elgoibarko Izarra duela 20 urte (1990)

1990etik 2010era arte Elgoibarko Izarrak egin duen lanaren balorazioa egiteko, 1990ean elkartearen zer egoeratan zegoen ikusiko dugu ezer baino lehen; abiapuntua ondo ezagutzeko komeni zaigu, egindako bideak zer eman duen behar bezala baloratzeko. Garai hartako lau bazkide-militanterekin egon naiz horretarako (6), eta beraiek lagundu didate Elgoibarko Izarraren orduko erretratua ateratzeko.

Aurreko atalean esan dudan moduan, 1990. urtea oso kritikoa izan zen Elgoibarko Izarrarentzat. Hondoan jota zegoen elkartearen eta desagertzeko erabakia mahai gainean zegoen. Bizpahiru bazkide baino ez ziren Elgoibarko Izarrari eutsi egin behar zitzaizela uste zutenak. Panorama hori kontuan hartuta begiratu behar diogu jarraian ikusiko dugun erretratuari.

Hasteko, argazkiaren alderdi ilunari erreparatuko diogu:

- Bi lagunek baino ez ziharduten elkarteari eusteko lanetan, eta beste hiruzpalau bazkidek, berriz, bertsoari lotutako egitasmoen ardura zeukaten. Gainontzeko bazkide guztiak elkarteko dinamikatik aparte zeuden, nahiz eta 800 bazkide inguru izan Elgoibarko Izarrak 1990ean.
- Elkarrekin ez zuten inolako planifikaziorik edo estrategiarik. Egiten zena elkarteari eustearren edo errutinaz egiten zen.
- Ez zegoen komunikaziorik eta harremanik bazkideekin eta herritarrekin. Ekintza solteen berri ematen zitzairen, baina, gainontzean, ez zegoen bestelako komunikaziorik.
- Ekintza solte eta banaka batzuk baino ez zeuden: *Txitxilibakio* aldizkariak bere txokotxoaren zuzendaritzari lotutako hiru ekintza edo jardura antolatzen ziren: Gabonetako bertso-jaialdia, Etxegiña bertso-paper lehiaketa, eta bertso-eskola. Hori bai, ekintza horiek estimazio polita zuten herritarren artean. Bazkide-militante batek aitortu didanez, “*elkarteari bizirik eustearren*” egiten ziren ekintza horiek. Bestalde, Ikastolako Zuzendaritza Batzordean parte hartzen zuten elkarrekin herriaren ordezkari moduan (1993. urtera arte parte hartu zuten Elgoibarko Izarrak Ikastolako Zuzendaritza Batzordean).
- Elgoibarko Izarraren izena ezaguna zen oraindik, baina izanak indar asko galdu zuten sasoi hartarako. Apenas zuten eraginik Elgoibarko gizartearen, eta elkartearen Ikastolarekin nahasten zuten jendeak; askorentzat gauza bera ziren.

(6) Andres Alberdik, Iñasio Garmendiak, Sebas Larrañagak eta Anjel Ugarteburuk eman didate garai hartako Elgoibarko Izarraren berri.

Laino beltzak nagusi izan arren, eguzkiak egiten zuen ku-ku noizbehinka, eta erretratuak baditu argiuneak:

- Egoera larria izan arren, bi bazkidek Elgoibarko Izarrari eusteko borondatea erakutsi zuten. Ez zuten 27 urteko historia eta lana desagertzerik nahi, eta bazuten ekaitzaren ondorengo barealdiaren esperantzarik. Bi lagun gutxi direla dirudi, baina, gerora ikusi den moduan, ez da gehiago behar dagoenari eutsi eta prozesu berri bati ekiteko.
- Ni neu ere prest nengoen nire onena elkartearen mesedetan emateko. Asko jaso nuen bi urtean, eta emateko ere asko nuen.
- Elkarteko 800 bazkideak lozorroan egon arren, bazkide asko eta asko prest zeuden Elgoibarko Izarraren dinamika berria babesteko (550 bazkide inguru izan ziren elkartearen etapa berria babestu zutenak).
- Elgoibarko Izarraren historia eta ordura arteko ibilbidea ere elkartearen alde zeuden. Lan asko eta ona egindako elkarte batean aurrean geunden, eta handia zen herritarren artean zuen onespina eta errespetua.
- Arraroa badirudi ere, dirua ez zen arazoa. Egia da ez zegoela diru askorik, baina ez zen gehiago behar. Bazkideen kuotetatik jasotzen zen dirua, Gabonetako bertso-jaialdiak ematen zuena, eta Udalaren diru-laguntza (654.000 pezeta 1990ean) ziren Elgoibarko Izarraren garai hartako diru-iturriak. Ez zen diru asko, baina nahikoa orduan behar zenerako. Betidanik elkarteko diru-kontuetan jardun duen bazkide batek esan zidan moduan, *“Elgoibarko Izarran ez da sekula dirurik egon, baina beti lortu izan da behar den beste”*.
- Ondasun aldetik ere, ez zegoen herren elkarte; 65 metro koadroko lokal propioa ere bazuen.
- 1985. urtearen bueltan Arrasaten AEDrekin hasitako euskara-elkarteen mugimendua zabaltzen ari zen Euskal Herriko hainbat herritara (Eibar, Lasarte, Durango ...) eta Elgoibarko Izarra ere hara begira jarri zen, etorkizuneko atea zabalduko zion giltzaren bila. Eta Adorez eta Atseginez Mintegiaren aterpea ere bagenuen, elkarteak egin beharreko lanaren marko teorikoa eskaintzeko.
- Azkenik, elkartearen inizatibaz sortutako Udaleko Euskara Batzordea ere han zegoen, elkartearen bidelagun izateko prest (7). Gainera, Elgoibarren euskarak zuen egoera soziolinguistikoaren gaineko ikerketa-lana egiten ziharduen SIADECOK.

(7) Hurrengo urteetan argi eta garbi ikusi da Udaleko Euskara Batzordeak paper garrantzitsua bete duela Elgoibarko Izarraren sendotze eta handitze-prozesuan. Euskara Batzordearen pisua arlo ekonomikoan baloratu behar dugu, batez ere, baina izan da bi erakundeen artean prestatutako hainbat egitasmo eta proiektu ere.

Hona hemen 1990eko egoera jaso eta laburbiltzen duen AMIA:

AMIA	Ahuleziak	Indarrak
Barne analisia	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lauzpabost lagun baino ez zeuden elkartearen bueltako dinamikan. ▪ Ez zegoen inolako planifikaziorik edo estrategiarik. Ekintza solteak bakarrik. ▪ Ez zegoen komunikaziorik bazkideekin eta herritarrekin. ▪ Elkartearen <i>izana</i> ez da argia, eta apenas duen eraginik herrian. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bi bazkideren eusteko borondatea. ▪ 800 laguneko bazkide-sarea. ▪ Elkartearen historia eta ibilbidea. ▪ Nahikotasun-maila, baliabideei dagokienez.
	Mehatxuak	Aukerak
Kanpo-analisia		<ul style="list-style-type: none"> ▪ AED eta euskara-elkarteen mugimendua, eta Adorez eta Atseginez Mintegia (8). ▪ Herritar baten prestutasuna, elkarte dinamika berri batean sartzeko. ▪ Udaleko Euskara Batzordea eta SIADECOren ikerketalana.

Laburbilduz, asko eman ondoren hutsik dagoen Elgoibarko Izarra ikusten dut erretratuan. Hutsik dago elkarte, bai, baina ondo erreparatzen badiogu, elkarteko ate eta leihoak ez daude itxita; haize berriak hartzeko zirrikituak ikusten dira han eta hemen.

(8) Adorez eta Atseginez Mintegia 1990eko hamarkadaren hasieran sortu zen. Garai hartako Eskoriatzako Irakasle Eskolak "Euskal Soziolinguistika" izeneko ikastaroak antolatu zituen, hiru urtez, larunbat goizetan. Ikastaroetan aritutako hainbat irakaslek eta ikaslek elkartzen jarraitu zuten Txepetxen teorizazioa zabaltzen jarraitzeko. Harreman hartatik, elkar babestuz eta adoretuz, mintegiko kideak buru-belarri aritu ziren nor bere inguruan zeukan praktikari buruz gogoeta egiten, proiektu berriak sortzen. Adorez eta Atseginez Mintegiko partaideen bultzada sumatu zen herri askotako euskara-elkarteen sortze- eta ekite-prozesuetan.

4.- Urtez urte egin duguna (1990-2010)

1990eko Elgoibarko Izarraren erretratua atera ondoren, 20 urteotan egin dugun garrantzitsuena erreparatu dugu atal honetan. Urtez urte egindako guztia erreparatu jardun dut, eta garrantzitsuena begitandu zaidana ekarri dut hona.

1990	Elgoibarko Izarra ezin da desagertu
	<ul style="list-style-type: none">▪ Elkartea ezin zela desagertu erabaki zuten bi bazkidek.▪ Elgoibarko Izarrari jite berria emateko prest zegoen pertsona baten bila hasi ziren bi bazkide haiek, eta nirekin egon ziren. Nik baietz esan nien, prest nengoela Elgoibarko Izarra berrindartzeko proposamena idazteko.▪ Proposamena onartu egin zidaten eta elkartearen etapa berria diseinatzeko hasi ginen poliki-poliki: organigrama, helburuak, lan-metodologia ...▪ Elgoibarko Izarraren asmo berrien aurkezpen sektorialak egin genituen: elkarteak, alderdi politikoak, euskaltzaleak ...▪ <i>Euskaldunon Egunkariaren</i> sorrera-prozesuan parte hartu zuen elkarteak, herri mailan sortu zen batzordeko kide moduan.

1991	Elgoibarko Izarra <i>berriaren</i> aurkezpen publikoa
	<ul style="list-style-type: none">▪ Otsailaren 1ean egin genuen Elgoibarko Izarra <i>berriaren</i> aurkezpen publikoa 125 herritarren aurrean. <i>Guk merezi duela uste dugu. Eta zuke?</i> izan zen leloa (2. eranskina).▪ Euskaltzaleak elkartearen etapa berrira erakartzeko lanei ekin genien (9).▪ Elkarteko 800 bazkideei jakinarazi genien Elgoibarko Izarraren etapa berriari ekitera gindoazela, eta bazkide izan nahi zuten ala ez galdu genien denek. 550 bazkidek esan zuten elkartean segitu nahi zutela.▪ Etapa berriko lehen lantaldeak prestatzen hasi ginen.

(9) Bigarren etapan bazkideei igorritako lehen gutunetako bat topatu dut paper artean. Akorduan daukat idazmakina zahar batekin idatzi nuela. *Hizkuntza ekologia* izenburua jarri nion, eta bitxia iruditu zait. Bere horretan erakutsi nahi dizuet, tartean dauden akats eta guzti (3. eranskina).

1992 Elgoibarko Izarraren *izena* eta *izana* berreskuratu behar ditugu

- Elkartearen izena eta izana gizarteratzea zen urteko helbururik garrantzitsuenetakoa.
- 25-30 laguneko Elgoibarko Izarra berriaren estreinako nukleoa edo eremu sinbolikoa osatu genuen.
- Soziolinguistika-ikastaroa antolatu genuen *Adorez eta Atseginez Mintegiaren* eskutik.
- *Ez dok amaitu!* jaialdia antolatu genuen, Elgoibarko Izarraren lehen etapako agente guztiekin (dantzariak, txistulariak, bertsolariak, kantariak, antzerkia ...), eta elkarteak sortu zutenak omendu genituen (4. eranskina).
- *elgoiBARREN* aldizkariaren proiektua idatzi (5. eranskina) eta proiektuaren aurkezpen sektorialak egin genituen. Abenduaren 24an ikusi zuen argia astekariak (6. eranskina). Olentzeroren erregalua izan zen.
- Nazio mailako hainbat ekimenetan parte hartu zuen elkarteak: ARGIA aldizkaria, ikastolen aldeko autobusak, *Euskaldunon Egunkaria* (trena, tonbola, autobusak ...).
- *Elgoibarko haurren euskalduntze prozesuaren oinarri teorikoak* txostena landu genuen. Txikienekin egin nahi genuen lanaren oinarri teorikoa zen (7. eranskina).

1993 elgoiBARREN astekariak gure etxeetako aldaba jo zuen

- *elgoiBARREN* astekaria 45 astez sartu zen gure etxeetako buzoietan. 550 harpidedunekin hasi zen (elkarteko bazkideak), eta 18 urtean 4.800 harpidedun izatera pasa da.
- Udalarekin estreinako hitzarmen ekonomikoa sinatu genuen (8. eranskina) (10).
- Lehen kontratu profesionalak sinatu zituen elkarteak, dinamizatzaileari eta *elgoiBARREN*eko lantaldeari (11). Lantalde dinamikan, berriz, 25-30 bazkide-militante inguru zebiltzan.
- Elkarteko aurrekontuak izugarri egin zuen gora BARRENen *erruagatik*: 600.000 pezetako aurrekontua izatetik 20 milioi pezetako aurrekontua izatera pasa zen.
- Santa Ageda bezperan baserriz baserri kantuan eta eskean irteteko ohitura zaharra berreskuratu genuen (gaur egun mantentzen duguna).
- 10 orduko soziolinguistika-ikastaroa eman nuen eta 50 lagunek hartu zuten parte.
- SIADECOK, Udalaren eskariz, Elgoibarren euskarak bizi zuen egoeraren gaineko ikerketa-lana amaitu zuen. Lan hark markatu zuen, neurri handi batean, Elgoibarko Izarrak 20 urteotan egin duenaren norabidea (9. eranskina).
- *Izarren Hautsa* berripaperak banatu genuen estreinako (10. eranskina). Helburua bazkideei elkartearen gaineko informazioa ematea zen (12).
- D ereduaren aldeko kanpainak egin genituen bizpahiru urtean.
- *Laiotz* literatur aldizkariaren estreinako zenbakia argitaratu genuen (13).

(10) Estreinako hitzarmena 7.550.000 pezetakoa izan zen. 5 milioi pezeta BARREN finantzatzeko ziren, 1.800.000 pezeta gainontzeko programetarako, eta 750.000 pezeta Elgoibarren hezitzaile ikastaroa antolatzeko. 2010ean, berriz, 220.000 euro jaso ditugu (orduko 36.520.000 pezeta).

(11) Elkarteko dinamizatzailea ni neu izan naiz hasiera-hasieratik. BARRENeko estreinako lantalde profesionala, berriz, lau lagunek osatu zuten: Ainhoa Lodoso eta Jasone Osoro kazetariek, Maite Rementeria discinatzaileak eta Amaia Leiaristi publizistak.

(12) 20 urteotan ez du etenik izan berripaperak, formatuak aldatu badira ere.

(13) *Elgoibarko Izarra Idazlehiaketak* sarietako lan irabazleak eta haien egileei egindako elkarrizketak argitaratzen genituen *Laiotz* aldizkarian. 2003ra arte iraun zuten, bai *Laiotz* aldizkariak eta baita Elgoibarko Izarra Idazlehiaketak ere (11. eranskina).

1994	Zelan ikusten dute elgoibartarrek Elgoibarko Izarra?
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkartearen gaineko ikerketa soziologikoa egin genuen herritarrek elkartearen zelan ikusten zuten neurtzeko, eta jende aurrean aurkeztu genituen emaitzak (13. eranskina). ▪ Lehendik zeuden kultur jarduerak asentatu eta eskaintza berriak prestatzen hasi ginen: ikastaroak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kantaldiak ... ▪ BARREN astekariaren inguruan BARREN Sariak eta kirolBARREN egitasmoak antolatu genituen (14). ▪ Aisialdi proiektua idazten hasi ginen. Begirale eta aisialdiko zuzendari-ikastaroak antolatu genituen, eta estreinako begirale-taldea osatu genuen. ▪ “<i>Alkate-zinegotzietan ejenplua nahi dugi</i>” kanpaina egin genuen, 1995eko udal-hauteskundeetan hautagai euskaldunak bultzatzeko (12. eranskina).

(14) kirolBARREN urteko herriko kirolaririk onena aukeratzeko ekimen bat zen, eta irakurleek aukeratzeko zuten. BARREN sariaren bidez, berriz, BARRENeko kolaboratzaileak, publizitatea egiten zuten merkataritza-etxeak, erakunde laguntzaileak eta herriko elkarteak txalotzen eta eskertzen genituen. BARRENeko orduko bazkide-eragile batek aitortu didan moduan, “BARRENen hasiera neketsua izan zen, eta garrantzitsua zen proiektuaren bueltan zuzendari guztiei eskerrak ematea”.

1995	Atxutxiamaiak Begirale Taldea
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Atxutxiamaiak</i> begirale-taldearen aurkezpen publikoa egin genuen. Aisialdi-jarduerak eta lehen zerbitzuak ere antolatzen hasi ginen. ▪ BARREN astekariaren gaineko ikerketa soziologikoa egin genuen, astekariak herrian zuen ezarpena eta harrera neurtzeko (14. eranskina). ▪ Bazkide berriak lortzeko estreinako kanpaina antolatu genuen, lehendik zeudenen bazkide-fitxak eguneratu ondoren. 75 bazkide berri lortu genituen. ▪ <i>Gurean Bai</i> hitzarmen-proiektua idatzi genuen (15. eranskina), eta proiektua aurkeztu genien Udalari eta entitateei. Haien babesari jaso ondoren, hitzarmeneko teknikaria kontratatu genuen. ▪ Elkarteko langile profesionalen jarduna arautzeko filosofia-txostena adostu eta idatzi genuen (16. eranskina). ▪ Euskara-elkarteen Topagunea sortzeko prozesuan parte hartu genuen. ▪ Dinamizatzailea soziolinguistika-hitzaldiak eta ikastaroak ematen hasi zen (15). ▪ BARREN astekariaren 100. zenbakia kaleratu genuen, eta hori ospatu egin behar genuela erabaki genuen (16).

(15) Urte askoan jardun dut hitzaldiak eta ikastaroak ematen han eta hemen. Nagusiekin jardun nuen hasieran (Deban, Beran, Eibarren, Zumaian, Zestoan ...), baina, batez ere, institutueta ikasleengana joan naiz euskararen eta hizkuntzen gainean hitz egitera. Elgoibarren, Bergaran, Arrasaten, Eibarren edo Ordizian aritu izan naiz, batez ere, eta oso-oso esperientzia polita izan da. Hamabost urtez horretan jardun ondoren, denbora faltagatik, 2009an laga nion institutueta joateari.

(16) 100. alea ospatzeko mahai-ingurua (*Kazetarren eragina euskal gizartean*), txikiBARREN jaia (pailazoak eta euskal karaokea), Xabier Leteren kantaldia, BARREN krosa (bikoteka), eta herri-bazkaria antolatu genituen.

1996 Herriko 52 elkarte eta entitatek esan zuten *gurean bai*

- Urtarrilean egin genuen *Gurean Bai* hitzarmenaren aurkezpen publikoa, eta herriko 52 elkarte eta entitatek sinatu zuten hitzarmena (59ri aurkeztu genien).
- *Gurean Bai*ko estreinako lanak egin genituen: entitateen diagnosiak egin; hitzarmen espezifikoa prestatu eta negoziatu; lehentasunak finkatu ...
- *Atzera begira aurrera egiteko* txostena idatzi genuen, lehen bost urteetako lanaren balorazio-txostena (17. eranskina).
- Ikastolarekin elkarrizketak izan genituen, bi erakundeen arteko harremanak normalizatzeko (17).
- *Dudaripe!* komikia argitaratu genuen elkartearen ezagutarazteko (18. eranskina).

(17) Arazoak eta haserreak izan ditugu Elgoibarko Ikastolarekin. Bai, elkarte honek hainbeste zaindu eta mimatu duen ikastolarekin ez dugu harreman onik izan. Ikastolak publikatzeko garaian izan zen lehen haserrea. Ikastolakoen iritziz, Elgoibarko Izarra ikastola publikatzearen alde zegoen, elkarteak gai horren gainean sekula iritzirik eman ez bazuen ere. Gerora, berriz, Elgoibarren *Kilometroak* jaia ospatu zenean, BARRENEko kolaboratzaile batek idatzitako iritzi-artikulu batek sortu zuen Ikastolaren haserrea.

1997 Kafe Usainean

- Elgoibarko Izarraren *nortasun-agiria* prestatu genuen. Bertan, besteak beste, elkartearen helburuak eta haien testuinguru teorikoa azaltzen da (19. eranskina).
- *Kafe Usainean* kultur programa prestatu genuen, herriko kultur gileen lanei lekua egiteko. 2001. urtera arte mantendu genuen programa hori (18).
- *Gurean Bai* hitzarmena sinatu zuten 52 entitateekin banan-banan hasi ginen lanean: irudi linguistikoak euskaldundu; formazio-saioak antolatu; bakoitzaren lehentasunak markatu; segimendua egiten hasi ...
- BARREN astekariaren 5. urteurrena ospatu genuen. Erretratu zaharren bilduma argitaratu genuen (20. eranskina).

(18) *Kafe Usainean* Kultur Etxeko sotoan izaten zen, eta herriko kultur gileak gonbidatzen genituen (musikariak, poetak, txiste-kontalariak, kantariak ...). Kafe bat hartu eta pastak janaz disfrutatzen zuen jendeak kultur ikuskizunez.

1998 Pedro Migel Urruzunoren omenez

- Pedro Migel Urruzuno idazle elgoibartarra omentzeko programa prestatu genuen, haren heriotzaren 75. urteurrenean (21. eranskina).
- Urruzuno literatur taldeak *Hamaika Litera* aldizkariaren estreinako zenbakia argitaratu eta banatu zuen (19).
- *Euskaldunon eskubideak* sentsibilizazio-kanpaina antolatu genuen (22. eranskina).
- *Kafe Usainean* programaren baitan Topagunearen Kultur Errotako eskaintzak txertatzen hasi ginen.
- *Gurean Bai* hitzarmenaren lehen fasea amaitu eta bigarren faseko borradorea idatzi genuen.

(19) Urruzuno literatur taldeko idazle gazteek sortu zuten *Hamaika Litera* aldizkaria, eta “*elgoibartarrak literaturaren espezie gazti-goztoekin tentatzea*” zen helburu nagusia. Lau zenbaki argitaratu zituzten (23. eranskina).

1999	Kulturgintzaren momenturik oparoena
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elgoibarko Izarraren kultur eskaintzaren unerik oparoena izan zen: <i>Elgoibarko Izarra Idazlebiaketak</i>; <i>Laiotz</i> literatur aldizkaria; Kafe Usainean (7 saio); <i>Urruzuno</i> literatur taldea; Santa Ageda eskea; Sargoateko erromeria; bertso-jarduerak; hitzaldiak ... ▪ <i>Toletxe</i> kafe-antzokia proiektua idatzi genuen (24. eranskina). ▪ <i>Arigera</i> proiektua idatzi genuen herriko bi euskaltegiekin batera, sektorearen gaineko gogoeta egin ondoren (25. eranskina). ▪ <i>Atxutxiamaikea</i> indartzeko lanak egin genituen: berrantolaketa, zuzendari-aldaketa, inbertsioak materiala hobetzeko, gazte lokala lortzeko lehen elkarrizketak ... ▪ Elgoibarko berbetia jasotzeko prestakuntza-lanekin hasi ginen.

2000	Hiru proiektu berri, XXI. mendea agurtzeko
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Toletxe</i> proiektua inauguratu eta lanean hasi ginen: jatorduak, <i>Ezagunak lagun</i> programa, ikuskizunak, poesia-emanaldiak, kontzertuak, diapositiba-emanaldiak ... ▪ GAZ-T aisialdi-taldea aurkeztu genuen, nerabeekin aisialdian lan egiteko. ▪ <i>Arigera</i> proiektua aurkeztu genuen jendaurrean, eta lanean ere hasi ginen: sektorea sustatu, matrikulazio-kanpaina egin, eta Elgoibarko euskalduntze-alfabetatzearen historia jaso genuen.

2001	Helduen euskalduntze-alfabetatzearen historia Elgoibarren
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Helduen euskalduntze-alfabetatzea Elgoibarren (1956-2000) 44 urteko historia</i> liburuxka argitaratu genuen (26. eranskina), eta omenaldia eskaini genien urteotan euskara ikasten eta irakasten jardun zutenei (27. eranskina). ▪ <i>Tertuliak</i> programaren estreinako kanpaina egin eta programari hasiera eman genion (20).

(20) Euskaraz berba egiteko aukerarik edo erraztasunik ez daukatenei zuzendutako programa da *Tertuliak*. Euskaldun berriak/bidelariak eta euskaldun zaharrak/bidelagunak elkartzen dira, eta astean ordubetez jarduten dute tertulian. Programa hau oraindik ere martxan daukagu, eta hamar urteotan, batez beste, 28 lagunek hartu dute parte urtero.

2002	Toletxe: nahi eta ezin
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Toletxe</i> proiektuaren gainbehera hasi zen. Bizilagunekin epaiketa ere izan genuen, eta, abenduan, proiektuko ateak itxi egin behar izan genituen (21). ▪ <i>Gurean Bai-Merkataritza</i> proiektua prestatu eta martxan jarri genuen (28. eranskina). ▪ BARREN astekariaren 10. urteurrena: gehigarri berezia argitaratu genuen (29. eranskina). ▪ Bailara mailan zerbait egin genezakeen aztertzeke lehen batzarrak egin genituen (22). ▪ <i>Arigera</i> proiektuari amaiera ematea erabaki genuen, hiru urteko lanaren ondoren. <i>Tertuliak</i> programari eutsi egin genion.

(21) Hasieratik izan genituen arazoak *Toletxe* gaineko bizilagunekin. Ez ziguten laga fatxada ukitzen, sukaldearekin hamaika traba jarri zizkiguten, eta, azkenean, epaiketa ere izan genuen.

(22) Bailarako aldizkari bat sortzeko lanekin hasi ginen, baina ideia kaxoi batean gordeta geratu zen bailarako telebistari lekua egiteko. Telebistaren bueltan hamaika ordu eman ondoren, berriz, azkenean Hamaika Telebistakoekin akordio batera iritsi ginen, eta lizentzia ere badaukagu bailarako telebista martxan jartzeko. Hamaika Telebistakoek, baina, hiriburuetan jarri dituzte lehentasunak, eta gure bailarakoa aurrerago etorriko da, etortzen bada.

2003	Elgoibarko Izarra zorretan itota (baina bizirik!)
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkartearen 40. urteurrena zorretan itota pasa genuen, baina zorrei aurre egiteko gauza izan ginen (23). ▪ Toletxe itxi ondorengo lanei ekin genien: taberna hustu, zorrak ordaintzen hasi, Kutxarekin kreditua negoziatu, eta abal-emaileen batzarra egin (46 herritarrek 3.000 euroko abala jarri genuen Toletxerako kreditua eskatzeko). ▪ <i>Gurean Bai-elkarteak</i> proiektua bertan behera geratu zen 2003ko apirilean (24). <i>Gurean Bai-merkataritza</i> hitzarmena, berriz, 135 dendarik sinatu zuten. ▪ Udaleko Gazte Informazio Gunearen kudeaketa gure ardurapean hartu genuen. <i>Biluzik</i> sexologi zerbitzua jarri genuen martxan. ▪ Beste herri batzuekin elkarlanean prestatutako <i>Asteon</i> gehigarria banatzen hasi ginen BARRENEkin batera. Egitasmo horrek oso iraupen motza izan zuen, proiektua oso defizitarioa zelako. ▪ <i>Euskaldunon Egunkaria</i> itxi zuten, eta haren aldeko herri-mobilizazioak koordinatu genituen. <i>BERRI</i>aren aldeko kanpaina eta ekintzak ere elkarteak koordinatu zituen.

(23) Toletxe proiektuak eragindako zorrak handiak ziren, eta bazkideei diru-laguntza eskatu behar izan genien (144 euro bakoitzari). Bazkideek oso ondo erantzun zioten elkartearen diru-laguntza eskariari, eta haiei esker egin zuen aurrera elkarteak. Proiektua martxan jartzeko eta zorrei aurre egiteko eskatu genituen kredituak (229.0000 euro), zorionez, laster ordainduko ditugu (2011n).

(24) Abel Irizar izan zen proiektuko teknikaria hasiera-hasieratik, eta hark lana laga behar zuela esan zigunean proiektua bertan behera lagatzea erabaki genuen, herriko elkarte eta erakundeak euskalduntzeko lanean zortzi urtez jardun ondoren.

2004	Elgoibarko berbetia, guria dalako
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jesus Mari Makazagari <i>Elgoibarko berbetia</i> lana aurkezten lagundu genion, eta herri mailako bi ikastaro antolatu genituen (60 lagunek parte hartu zuten). ▪ Haurrak eta gazteak sailarekin lotutako beste bi programa jarri genituen martxan: <i>Euskara erreformatuak</i> eta <i>Kiribilka</i>. ▪ Diru-arazoak zituen elkarteak, eta San Bartolome jaietan txosna jartzea erabaki genuen (hiru urtetan jarri genuen txosna herriko jaietan).

2005	Elgoibarko Izarraren 40 urteko historia eta protagonistak
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Izarren Hautsa 40 urtean</i> liburuaren aurkezpena egin genuen. 1963tik 2003ra bitartean Elgoibarko Izarrak egindakoa jaso genuen lan horretan. Ahal genuen informazio guztia biltzeaz gain, 54 lagun elkarrizketatu genituen 40 urteko historia protagonisten ahotik kontatzeko helburuarekin. ▪ Elkartearen barne-funtzionamendua arautzeko <i>Elgoibarko Izarraren Barne Araudia</i> txostena prestatu genuen (30. eranskina). ▪ Bazkide-kanpaina egin genuen, eta 66 bazkide berri lortu genituen. ▪ <i>Gurean Bai-merkataritzaren</i> lehen fasearen balorazioa egin (31. eranskina) eta 2. faseko oinarriak jarri genituen. ▪ BARRENEen kalitatearen gaineko ikerketa-lana egin zigun Andres Gostin kazetari eta irakasleak (32. eranskina).

2006	Gau-eskolaren 50. urteurrena!
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elgoibarko gau-eskolaren 50. urteurrena ospatu genuen eta gau-eskola sortu zuen Pako Juaristiri hil ondorengo omenaldia eskaini genion. Gainera, BARREN astekarian gehigarri berezia argitaratu genuen gau-eskolaren eta euskaltegien gainean (33. eranskina). ▪ <i>Kuadrillategi</i> programa jarri genuen martxan, Elgoibarko gazte-koadriletan euskaraz hitz egiteko ohitura sustatzeko helburuarekin (34. eranskina). ▪ elgoiBARREN.net atari digitala jarri genuen martxan urrian (ikus www.elgoibarren.net). ▪ Luzaroan hala-moduzko soldatekin egon eta gero, langile profesionalen soldatak eguneratzeko ahalegin berezia egin zuen elkarteak (25).

(25) Urte askoan soldata baxuak izan ditugu elkartean, baina gaur egungo soldatak duinak direla uste dut. Soldata gordinaren batez bestekoa 1.600 eurokoa da: 2.081 euroko soldata gordina dauka gehien kobratzen duenak, eta 1.400 eurokoa gutxien irabazten duenak.

2007	Ludoteka eta gaztelekua ere gure arduran
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ludoteka, gaztelekua eta Gazte Informazio Gunea kudeatzeko Udalak antolatutako lehiaketa publikoan parte hartu genuen, eta lehiaketa irabazi genuen. Lehen lanak ere egin genituen: lantaldea aukeratu, prestakuntza-lanak egin, programazioa prestatu eta ekipamenduetako ateak ireki. ▪ <i>Gurean Bai-ostalaritza</i> proiektua prestatu genuen (35. eranskina), eta ostalariei aurkeztu ondoren, aurkezpen publikoa egin genuen. Lehen lanak: hitzarmen orokorra eta espezifikoa prestatu, promozioa egin, eta normalizazio-lanei ekin. ▪ Kulturgintzak izugarri egin zuen behera, eta bi kultur jarduera baino ez genituen mantendu: Santa Ageda eskea eta Gabonetako bertso-jaialdia. ▪ Jesus Mari Makazagak idatzitako <i>Elgoibarko euskara, berbak, egiturak eta irakurgaiak</i> liburuaren aurkezpenean parte hartu genuen, laguntzaile moduan (36. eranskina). ▪ GAZ-T programa bertan behera laga genuen, proiektuak ez zuelako ematen guk nahi genuena.

2008	Urteurrenak ospatu egin behar dira!
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Abendua bertsoan!</i> bertso-programa berezia prestatu genuen, bertso-jaialdiaren 25. urteurrena ospatzeko. Gainera, bertso-eskolako eragilea izan zen Angel Ugarteburu omendu genuen. Amaitzeko, Gabonetako bertso-jaialdiari eskainitako gehigarri berezia argitaratu genuen BARRENen (37. eranskina). ▪ Elgoibarko Izarraren 45. urteurrena ospatzeko honako ekintza hauek prestatu genituen: Elkartearen gaineko gehigarri berezia BARRENen (38. eranskina); <i>Elgoibar KOLORETAN</i> mahai-jokoa (26); <i>Euskal kultura tradizionalaren transmisioa</i> ikastaroa, Xamarrekin; bazkide-kanpaina (40 bazkide berri lortu genituen) (39. eranskina). ▪ Gotzon Garate idazle eta euskaltzaleari gehigarri berezia eskaini genion BARRENen, oso gaixo zegoela jakin genuenean (40. eranskina). Handik gutxira, zoritxarrez, hil egin zen.

(26) Elgoibartarrok gure herria hobeto ezagutzeko mahai-jokoa da *KOLORETAN*. Partxisak eta tribialak bat egiten dute mahai-jokoan, eta Elgoibarren gaineko 900 galdera-erantzun dauzka (41. eranskina).

2009 Agur eta ohore, Gotzon!

- Gotzon Garate zenari herri-omenaldia eskaini genion, eta haren omenez programazio berezia prestatu genuen: hitzaldiak, Gotzonen lanen erakusketa, gehigarri berezia BARRENen (42. eranskina) ...
- BARRENen gaineko ikerketa soziologikoa egin zigun Aztiker enpresak, Topaguneari esker. Ikerketa herriko hainbat lagun eta eragilerekin egindako elkarrizketekin osatu genuen (43. eranskina).
- Haurrak eta Gazteak Arloan ere egoeraren diagnosia sakona egin genuen. Diagnosia jaso ondoren, Lan Planarekin hasi ginen.

2010 Elgoibarko Izarra etorkizunari begira

- *Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte*. 1990-2010. *Atzera begira aurrera egiteko*: Elgoibarko Izarrak 20 urteotan egin duen lanaren balorazioa egiten dihardugu.
- Zer funtzio bete behar du Elgoibarko Izarrak etorkizunean? Topaguneari batere guk ere elkarteari etorkizuneko funtzioa hausnartu nahi dugu.
- Elgoibarko Izarrako Komunikazio Plana idazten dihardugu. Komunikaziorako irizpide nagusiak idatzi ondoren, hurrengo hiru urteetarako (2011-2013) Komunikazio Plana prestatuko dugu.
- Aspalditik haren atzetik ibili eta gero, BARRENen Estilo Liburua idatzi dugu (44. eranskina).
- Diagnosia jaso ondoren, aurten Hedabide Sailaren Lan Plana amaitu nahi dugu.
- Haurrak eta Gazteak Arloaren Lan Plana ere aurten amaituko dugu.
- Urrian *Euskara ala ez?* programa izango dugu, Gotzon Garateren omenez.

Orain, nahi baduzue, 20 urteotan egindakoa ikustera gonbidatu nahi zaituztet. 1990etik gaur arteko erretratu mordo bat inguratu dut, eta musika lagun dugula, elkarteak urteotan egindakoaren errepasso fotografikoa egingo dugu. Ea gustatzen zaizuen (45. eranskina).

5.- Elgoibarko Izarra gaur egun (2010)

Ikusi dugu 1990ean zer itxura zuen Elgoibarko Izarrak, eta errepasatu dugu 20 urteotan egindako garrantzitsuena. Baina, nolakoa da gaur egungo Elgoibarko Izarra? Zer jite dauka elkarteak 20 urte geroago? Atal honetan 2010eko Elgoibarko Izarraren erretratua ateratzen saiatuko gara.

Kasu honetan indarguneak aitatuz hasiko gara, eta gerorako lagako ditugu puntu ilunak:

- **Lantalde profesional sendoa.** Momentu honetan kontratudun 22 langile profesional gaude elkartean lanean (27). Gutxi batzuk berriak badira ere, gehienok dezenteko eskarmentua daukagu, eta langileon esperientzia gure alde dago. Gainera, 30 hezitzaile inguru ere badauzkagu Haurrak eta Gazteak Arloko proiektuetan inplikatur, eta, horiei, udalekuetan lan egiteko behar izaten ditugun hezitzaileak gehitu behar dizkiegu (beste 25 hezitzaile inguru). Bestalde, krisi-garaian egon arren, lan-baldintza duinetan dihardugu lanean, eta horri azpimarratzeko moduko kontua dela irizten diot.
- **600 laguneko bazkide-sarea, laguntzeko prest.** Gaur egun 22 bazkide-militante inguru daukagu lan-dinamikan inplikatur, baina badakigu bazkide-sarea hor izango dela beharra dagoenerako.
- **Bi proiektu sendo eta estimazio polita duten hainbat egitasmo daukagu.** Momentu honetan Hedabide Saila eta Haurrak eta Gazteak Arloa dira elkarteari eusten dioten bi zutabe nagusiak, eta herritarren konfiantza daukate, gainera. Biak ala biak proiektu sendoak dira, eta bien inguruan dabil jiraka gaur egungo Elgoibarko Izarra (28). Bi proiektu nagusiak hauek badira ere, Santa Ageda eskeak, Gabonetako bertso-jaialdiak, *Tertuliak* programak, edo Gotzon Garateren omenez antolatzen ditugun programek ere estimazio polita daukate.
- **20 urteko lan-dinamikak emandako esperientzia eta eskarmentua.** 20 urteko ibilbideak gauza asko erakusten ditu. Gure lana ezagutzen dugu, eta ingurua ere ezagutzen dugu; ingurukoek ere ezagutzen gaituzte, eta badakite zertan dihardugun. Orain arte egin dugun bideak eskarmentu polita emango digu aurrera egiteko.

(27) Dinamizatzaileak, diseinatzaileak, administrazioako bi langileek, Gurean Baiko teknikariak, hedabide saileko sei langileek, Haurrak eta Gazteak saileko 4 zuzendariak, eta ekipamenduetako sei langileek egiten dugu lana kontratupean. 13 langilek egun osoko jardunaldia daukagu, 6 langilek egun erdikoa, eta 2 langile daude 25 orduko jardunaldiarekin.

(28) Hedabide Sailean bi proiektu daukagu: BARREN astekaria eta elgoiBARREN.net atari digitala. Gaur egungo Haurrak eta Gazteak Arloa, berriz, honako proiektu hauek osatzen dute: Atxutxiamaiak; Kiribilka; Euskara Errefortzuak; ludoteka; Kuadrillategi, Gaztelekua eta Gazte Informazio Gunea.

- **Elgoibarko Udalaren babes ekonomikoa eta elkarlana.** Udalak elkarteari eskaintzen dion babes ekonomikoa oso garrantzitsua da. 1993an sinatu genuen estreinako hitzarmen ekonomikoa (7.500.000 pezetako hitzarmena izan zen), eta, harrezkero, urtero-urtero sinatu dugu hitzarmena. Azken hiru urteetan diru-laguntzek behera egin dute krisia dela eta, baina oraindik ere oso diru-laguntza garrantzitsua jasotzen dugu Udalaren eskutik (2010ean 220.000 euro jaso ditugu gure proiektu eta egitasmoak finantzatzeko). 20 urteotan Udalak emandako diru-laguntza zenbatekoa izan den ere aztertu dugu, eta denera 2.639.427 euro jaso dugula ikusi dugu (lehengo 439.163.735 pezeta).

Elkarlanari dagokionez, berriz, Euskara eta Gazteria batzordeekin dihardugu, batez ere, lankidetzan. Euskara Batzordearekin pare bat programatan daukagu lankidetzaz (*Gurean Bai* hitzarmena eta Gotzon Garateren omenez prestatzen ditugun egitasmoak), eta Gazteria Batzordearekin, berriz, haurrekin eta gaztetxoekin lotutako programak daukagu. Ekipamenduen kasuan (ludoteka, gaztelekua eta Gazte Informazio Bulegoa) areagotu egiten da Gazteria Sailarekin daukagun elkarlana.

- **Topagunearekin daukagun elkarlana eta bertatik jasotzen dugun laguntza.** Elgoibarko Izarra ez dago bakarrik euskalgintzan; Topagunea da gure antzera dauden elkarten aterpea, eta hor biltzen gara denok. Laguntza eta aholkularitza behar dugun guztietan jasotzen dugu Topagunetik.

Baina arantzarik gabeko arrosarik ez dagoenez, gaur egungo Elgoibarko Izarran ere bada zer hobetu:

- **Bazkide-militanteen parte-hartze edo inplikazio baxua.** Une honetan, eta oso maila diferentetan bada ere, 22 bazkide-militante inguru daukagu elkarteko lan-dinamikan inplikaturik (langile profesionalak ere beste horrenbeste gara). Gai honen gainean ere gogoeta sakona egin nahi dugu. Elkarteak bete beharreko funtzioa erabakitzen dugunean, besteak beste, bazkide-militanteek elkartean bete beharreko papera ere definitu nahi dugu.
- **Elkarteko ekonomiari lotutako puntu dezente** daukagu hobetu beharreko zakuan. Ikus ditzagun garrantzitsuenak:
 - a) **Ez daukagu elkarteari lotutako proiektu ekonomikorik.** Orain arte aurrekontuak erraz samar atera ditugu aurrera, eta, akaso, horregatik ez dugu proiektu ekonomikorik behar izan. Baina, orain, diru-sarrerak eta gastuak parera ekartzeko zailtasunak daukagunean, arlo ekonomikoari orain arte baino serioago heldu behar diogula konturatu gara.
 - b) **Aurrekontuei aurre egiteko zailtasunak.** Esan bezala, aurten arazo eta zailtasun asko izan ditugu aurrekontuak ixteko. Diru-gastuak sarrerak baino handiagoak ziren, eta esfortzu handia egin behar izan dugu aurrekontuak defizitarioak ez izateko (besteak beste, soldatak izoztu egin ditugu).
 - c) **Autofinanziazio-maila baxua.** Aurtengo autofinanziazio-maila % 53koa da, eta ekonomikoki elkarte sendoa izan nahi badugu, hori baino handiago lortu behar dugu. Diru-laguntzen mendekotasuna handiegia da, eta horiek igotzeko lanean segitu behar badugu ere, diru propioen iturria gehiago zabaldu behar dugu.

- d) **Mendekotasun ekonomikoa administrazioarekiko.** Aurtengo diru-sarrereren erdia administrazioak emandakoa da. Udalak diru-sarrereren % 29 eman digu, eta Jaurlaritzaren eta Aldundiaren artean, berriz, % 19. Elkarteak behar ditu administrazioaren diru-laguntzak, eta haiek handitzeko lanean segitu behar dugu, gainera, baina mendekotasun handiegia daukagu. Diru-sarrereren erdia administrazioak emandakoa izatea arriskutsua begitantzen zait.
- e) **Dirulaguntzen gaineko zalantzak.** Aurreko hutsuneari oso lotuta ikusten dut honako hau. Izan ere, administratziotik jasotzen ditugun diru-laguntzak ez dira batere seguruak. Udalak, adibidez, aurtengo duela hiru urte baino 51.000 euro gutxiago eman dizkigu, eta, ondorioz, *Gurean Bai-ostalaritza* proiektua bertan behera laga behar izan dugu. Bestalde, Jaurlaritzaren eta Aldundiaren diru-laguntzak ere nahiko airean daude. Berandu jasotzeaz gain, urtero zalantza artean etortzen den zerbait izaten da.
- **Komunikazio-hutsuneak,** elkarteko maila guztietan:
 - a) **Langileen artean.** Ez daukagu behar besteko komunikaziorik langileon artean, ez informazioari dagokionez, ez komunikazioari dagokionez, ez eta transmisioari dagokionez ere. 22 langile gara, bakoitza bere lanekin estu, eta lau lantoki diferentetan banatuta gaude, baina hori ezin da aitzakia izan gaur egungo komunikazio-eza arrazoitzeko.
 - b) **Elkarteko sailen artean.** Elkarteko bi sail garrantzitsuenen artean ez dago behar besteko komunikaziorik, eta horrek, besteak beste, bien arteko haserreak ere sortu ditu.
 - c) **Bazkideekin.** Elkarteko bazkideekin daukagun komunikazioa eta harremana oso txikia da. Informazioa zabaltzen dugu noizean behin (*Izarren Hautsa* berripaperarekin eta emailez, batez ere), baina elkarte bat baldin bagara, hori baino gehiago zaindu behar dugu bazkideen arteko hartu-eman eta komunikazioa.
 - d) **Herritarrekin.** Proiektuak badira erreferentzia Elgoibarko herritarren artean, baina ez dakigu Elgoibarko Izarra erreferentzia baden. Proiektuak elkarte bera baino ezagunagoak dira kasu askotan; BARRENen kasuan, adibidez, harpidedun eta herritar askok ez dakite BARREN Elgoibarko Izarrak argitaratzen duenik (Aztikerrek egindako ikerketan baieztatu dugun moduan). Eta *Atxutxiamaikaren* kasuan ere beste horrenbeste esan dezakegu (gurera etortzen diren gurasoekin ziurtatu dugu hori). Garrantzitsua da proiektuak ezagunak izatea, baina elkarte herriratzea nahi badugu (eta herria elkarteratzea ere bai), ezinbestekoa izango da herriaren eta elkartearen arteko komunikazioa sustatzea.
 - e) **Teknologia berrien trenera igo ezinik.** Interneten ez dagoena ez omen da existitzen. Hori diote behintzat. Bada, Elgoibarko Izarrak ez du bere web-orririk oraindik. Googleren bilatzailean Elgoibarko Izarra jarritz gero, gainera, gaztelaniazko azalpenak irteten dira (Udalaren web-orriaren daudenak). Berandu samar bada ere, konturatu gara hutsuneaz, eta aurtengo uztailean prest egongo da elkartearen web-orria.

- **Elkartearen egitura eta funtzioak ondo definitu gabe dauzkagu.** Elkartea asko handitu da, egitura korapilatu egin da, eta langile-kopuruak ere izugarri egin du gora. Elkartea asko aldatu da 20 urteotan, eta ez dugu asmatu egitura eta funtzioak egoera berrietara egokitzen. Definizio-etak arazo bat baino gehiago eman digu.
- **Lanerako espazioak txiki geratu zaizkigu.** Elkartearen bulegoa txiki geratu zaigu. 9 lagunek egiten dugu lan 60 metro koadroko espazio batean, eta BARRENEko lantokiak, berriz, ez ditu lanerako baldintza duinak betetzen. Txikia izateaz aparte, hezetasuna dago eta usain txarrak ere egunero-egunero bisitatzeko gaitu (kanpo aldean Elgoibarko merkatu-plaza dago). Ganorazko biltokia ere falta dugu, elkarreak daukan material guztia biltzeko.
- **Harreman eta elkarlan gutxi herriko elkarte eta eragileekin.** Gurea bezalako elkarte batek harreman eta elkarlan gehiago beharko luke herriko gainontzeko eragile eta elkarteekin. Bakoitza gure lanean zentratuta egon arren, denon arteko harremana eta elkarlana ere ezinbestekoa da herri mailako helburuak bete nahi baditugu.

Hona 2010eko egoera jaso eta laburbiltzen duen AMIA:

AMIA	Ahuleziak	Indarrak
Barne-analisia	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bazkide-militanteen inplikazio eskasa. ▪ Ekonomiari lotutako ahuleziak. ▪ Komunikazio- eta transmisio-hutsuneak. ▪ Funtzio eta arduren definizio-eza. ▪ Lanerako espazio txikiak eta eskasak. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Langile profesionalen lantalde sendoa. ▪ Hezitzaile-sare sendoa. ▪ Bi proiektu sendo eta estimazio polita duten programak. ▪ 600 bazkideren babesak. ▪ Esperientzia eta eskarmentua
	Mehatxuak	Aukerak
Kanpo-analisia	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erreferentzialtasun-eza: elkartea ez da ezaguna, eta proiektuak ez dira elkartearekin lotzen. ▪ Harreman eta elkarlan eskasa herriko eragile eta elkarteekin. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarren konfiantza, proiektu eta egitasmoekin, batez ere. ▪ Udalaren babesak eta elkarlana. ▪ Topagunea.

Laburbilduz, estimazio eta babes handia duten proiektu eta egitasmoak dauzkagu, baina elkartearen enborrak ez dauka behar besteko sendotasunik. Elkarteko proiektuak elkartearen beraren gaintik daude, eta, ondorioz, erreferenteak proiektuak dira, elkartea itzalpera kondentatuz. Lantalde indartsua daukagu, eta bazkideak ere hor daude behar ditugunerako; horrek etorkizuneko ate asko zabal diezazkiguke. Hori bai, elkartearen egoera ekonomikoaren inguruan laino beltzak ikusten dira.

6.- Zer lortu dugu 20 urteotan? Zer ez dugu lortu?

Lan honen muinera iritsi gara, beharbada. Txostenaren hasieran 1990eko Elgoibarko Izarra ezagutu dugu; gero, 20 urteetan egin den garrantzitsuena erreparatu dugu; eta zirkulua ixteko, gaur egungo Elgoibarko Izarrari atera diogu erretratua. Baina, zer lortu dugu 20 urteotan? Zertan aldatu da orduko eta gaur egungo Elgoibarko Izarra? Duela 20 urte baino herri euskaldunagoa al da Elgoibar? Zer paper bete du Elgoibarko Izarrak gure herria euskaldunagoa izateko ahaleginean?

Mugarik ez daukan eremu batera sartzera goazen errezeloa daukat, eta lorpenen saila hesitu beharra daukat nolabait; niretzat garrantzitsuenak izan direnak-edo ekarriko ditut hona. Lortu dugunaren segidan, berriz, lortzeke edo egin gabe geratu dena aitatuko dut.

Zer lotu dugu?

Ikus dezagun 1990ean hasi eta gaur arteko lanari esker, nire ustez, lortu dugun garrantzitsuena:

- **Elgoibarko Izarra ez desagertzea, eta elkartearen izena eta izana berriz ere gizarteratzea:**

Behar bada hau da lehen lorpen garrantzitsua. Lan asko eta ona egin ondoren, elkarte jaustear egon zen 1990ean, baina, zorionez, Elgoibarko Izarraren historiari jarraipena ematea lortu genuen. Elkartearen izena eta izana galzorian egon baziren ere, oraindik elgoibartarren artean diraute biek, eta 50 urte beteko dute 2013an.

- **Herritarrei euskararen alde lan egiteko aukera ematea:**

Pako Juaristi gidari eta eragile zela, 1950ean hasi zen gerra ondorengo euskalgintza modernoa Elgoibarren, eta hamahiru urte geroago, 1963an sortu zuten Elgoibarko Izarra hiru euskaltzalek. Ondorioz, 1950ean hasi eta 1990era arte chunka elgoibartarrek izan zuten euskararen alde lan egiteko aukera. Bigarren etapan ere izan da aukerarik Elgoibarko euskaltzaleentzat. Elkartearen lehen etapan jardun zutenak izan dira batzuk, baina etapa berri honetan gurdira igo direnak ere asko izan gara: 110 bazkide-militante inguru izan ditugu 1990etik hona (44. eranskina). Gainera, euskalgintzan jardutea lanbidea izateko aukera ere eskaini du elkarteak: 61 lagunek egin dute lana kontratupean (45. eranskina). Gazte mordo batek, berriz, (200 inguruk) aisialdi euskaldunaren alde lan egiteko aukera izan dute (46. eranskina). Ikusten duzuen moduan, euskararen alde egiteko hamaika aukera eskaini ditu elkarteak. Batzuek, gainera, gurean lehen pausoak eman ondoren, beste leku batzuetara salto egiteko aprobetxatu dute: EITBn dago BARRENen lanean jardundakoren bat; Eibarko Codesyntax enpresa ezagunean ere bai beste bat; lan-mundua euskalduntzeko sortu zen EMUN enpresan dihardute gurean jardundako pare bat lankidek; Topagunean dihardu besteren batek; Udaletxeko teknikari lanetan ere badabil bateren bat; ...

- **Lantalde profesional sendoaosatzea:**

1991n hasi zen lanean estreinako langile profesionala, baina ordutik hona, ikusi dugun moduan, etengabeko joan-etorria izan da langileen artean. Gaur egun (2010) kontratupean lan egiten duten 22 langileek eta ordaindutako lanean diharduten 25-30 hezitzaileek osatzen dute Elgoibarko Izarrako lantalde profesionala. Lantalde handia eta sendoa da, esperientzia eta gaztetasuna uztartzen dituena. Gaitasun profesionala altua da, eta, oro har, euskararengatik, duten onena emateko prest dagoen jendea da. Langile profesionalen militantzia asko baloratzen da gurean, eta gustura gaude daukagun lantalde profesionalak ematen duenarekin. 50 laguneko motorra dauka elkarteak, eta horrek ate asko irekitzen dizkio Elgoibarko Izarraren etorkizunari.

- **Gure aurrekoek egindako lana jaso, gizarteratu eta goratzea:**

Aurrera egin nahi genuelako hasi ginen lanean 1990ean, baina beti izan dugu oso argi gure aurretik ere izan zirela beste batzuk. Horiek izan zirelako gara gu. Horregatik antolatu genuen 1992an *Ez dok amaitu!* jaialdia, elkarteko sortzaileak omendu eta lehen etapako kultur gile guztiak oholtza gainera eramateko. Horregatik zabaldu genuen lau haizetara Pedro Migel Urruzuno idazle eta apaiz elgoibartarraren izena eta izana. Horregatik argitaratu genuen 2001ean Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzearen historia jasotzen duen liburuxka; eta horregatik omendu genituen 56an gau-eskola sortu zuen Pako Juaristi eta garai zail haietan euskara ikasten edota irakasten jardun zuten herritarrak. Horregatik idatzi eta argitaratu genuen 2005ean *Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte (1963-2003) Izarren Hautsa 40 urtean* liburua, elkarte honek 40 urtean egindakoa jaso eta erakutsi nahi genuelako. Horregatik jaso genuen elkarte honetan bertsogintzari lotuta egon den guztia, eta horren guztiaren eragilea izan zen Angel Ugarteburu omendu genuen. Horregatik eman genuen 2008an Gotzon Garate idazle eta euskaltzale finaren bizitzaren eta obraren berri BARRENen, hiltorian zegoenean; eta urtebete geroago, hil zeneko urteurrenean, herri-omenaldia eskaini genion, gure herriko euskaltzale finenetakoa izan delako. Eta horregatik irteten gara otsailaren 4an baserriz baserri, eskean eta kantuan, gure aurrekoen ohitura zaharrak gorde nahi ditugulako. Esan bezala, etorkizunari begira dihardugu lanean, baina gure historia ezagutu egin behar dugu. Historialari bati duela gutxi irakurtzen nion moduan, “*zaila da ezagutzen ez duzun zer bait defendatzea*”.

- **Euskalgintzako eta kultur gintzako erreferente bat izatea:**

Elgoibarko Izarra sortu zenean, gau-eskola eta Pako Juaristiren bueltan sortutako kultur mugimendua ziren Elgoibarko euskalgintzako eta euskal kultur gintzako erreferente bakarrak. Elgoibarko Izarraren lanari esker, baina, erreferente berriak agertu ziren: ikastola, dantza eta txistu taldeak, Aubixa aterpetxea ... Gaur egun, zorionez, erreferente asko daukagu, eta Elgoibarko Izarra ere haien artean dago. Ez gara elkarte erreferente nagusia den ala ez aztertzen hasiko; ez dugu uste hori garrantzitsua denik. Akaso, gainera, euskaldunontzat hobea da erreferente asko eta diferenteak izatea. Euskalgintza ugariagoa eta zabalduagoa dagoen seinalea izango da. Hori bai, beharbada haien artikulazio-eza da herri mailan dugun hutsuneetariko bat, baina gai horri aurrerago helduko diot.

- **Elkarte autonomia eta irekia izatea:**

Elgoibarko Izarra autonomia eta irekia izan da sortu zenetik, eta ez du sekula inolako lotura organikorik izan (Ikastolako Zuzendaritza Batzordean parte bazuen ere, herriaren ordezkari moduan, 1993ra arte). Elgoibarko Izarra *kolore* guztietako euskaltzaleak gustura egoteko elkarte izateko borondatearekin sortu zen, eta bigarren etapa honetan ere helburua lortu dugulakoan nago. Horren adierazle da elkarteko maila guztietan dagoen aniztasuna, bai langileen artean, bai bazkide-militanteen artean, eta baita bazkideen artean ere. Bestalde, Elgoibarko Izarra bazkideena da; erabaki-ahalmena ere gurea da, eta inork ez digu agintzen zer egin behar dugun.

- **Erdaldunak kontra ez egotea:**

Gure herrian euskaldunak gehiengo bagara ere (% 70, euskaldunak eta ia-euskaldunak batuz gero), erdaldunen komunitatea ere hor dago, eta horiek aintzat hartuta lan egin behar dugu. Euskararen aldeko lanean dihardugunean, askotan erdaldunen kontrako zerbait egiten dugula dirudi, baina gure kasuan garbi geratu da hori ez dela egia. Elgoibarko erdaldunek, oro har, ondo ikusten dute Elgoibarko Izarraren lana, eta estimatzen dituzte gure proiektuak (BARREN, adibidez), eta, kasu batzuetan, parte ere hartzen dute, zuzenean ez bada, zeharka (*Atxutxiamaika* eta *Kiribilka* aisialdi programetan, adibidez). Gure helburuetako bat da Elgoibarko erdaldunak euskarari begira jartzea; erdaldunak euskararekin kontaktuan jarri eta, ahal den neurrian, erdaldunak euskalduntzea (helduko diogu erdaldunen gaiari, berriz ere, aurrerago).

- **Bi proiektu sendo herrian errotzea:**

20 urteotako lanaren zuztarrik sendoenak, seguruenez, Hedabide Sailak eta Haurrak eta Gazteak Arloak lagatakoak izango dira. Biak ala biak ondo errotuta eta estimazio handia duten proiektuak dira, baina atal honetan bertan aurrerago aztertuko dugu sakonago bata eta besteak eman dutena.

- **Udalaren laguntza eta babesa:**

Beti pentsatu izan dugu herri-ekimenak eta administrazioak bat egin behar dutela euskara berreskuratzeko ahaleginean, eta bigarren etapan lortu dugu Udalak gure lana babestea. Leku gutxitan moduan lagundu dio diruz Elgoibarko Udalak elkarteari, eta, gainera, bi erakundeon arteko elkarlana ez da ahuntzaren gauerdiko eztula izan. Euskara Batzordearekin eta Gazteria Batzordearekin dihardugu elkarlanean, batez ere, eta neurri handi batean Udalaren konfiantza ere irabazi dugula esan dezaket (gogoratu aisialdiko udal-ekipamenduak ere guk kudeatzen ditugula). BARREN dela-eta elkarrizketa bat baino gehiago izan ditugu alkate gehienekin, baina, oro har, oso harreman ona izan dugu 20 urteotan Udalarekin.

- **Elgoibar Euskal Herriko euskalgintzako mapan kokatzea:**

Gure herria ezaguna da hemendik kanpo hainbat konturengatik (onak eta txarrak, nahasian). Guri dagokigunez, Elgoibarko Izarrari esker Elgoibarren izena euskalgintzaren mapan azaltzen dela esan dezaket; euskara-elkarteen mapan bai behintzat. Gure lekua irabazi dugu euskara-elkarteen munduan, eta proiektu bat baino gehiago izan dira erreferente. BARREN astekariak, adibidez, berehala hartu zuen bete tokia, eta *Gurean Bai* hitzarmenak ere paper garrantzitsua bete zuen garai batean. Aspaldi honetan, berriz, haurrak eta gaztetxoek bueltan egiten dihardugunak ere pisua hartu du. Euskal Herria euskal herriek osatu behar badute, guk gure aletxo eskainiko dugu gure ondorengoek Euskararen Herria ezagut dezaten.

Beste lorpen batzuk:

- **Herriko elkarte, erakunde eta merkatarik askok euskarari BAI esatea:** Auto-konpromisoan oinarritutako proiektua izan da *Gurean Bai* hitzarmena, eta herriko 251 agentek euskarari baietz esatea lortu dugu. Eta baietza ez zen euskararen aldeko sinadura bota edo 25 euro emateko. Ez, haien eguneroko funtzionamenduan euskarari leku handiagoa emateko konpromisoari esan zioten baietz; euskara gehiago erabiltzeko erabakia hartu zuten herriko 251 agentek (51 elkarte eta erakundek, 150 merkatarik, eta 51 ostalarik). Badakigu konpromiso-mailak oso diferenteak direla batetik bestera, baina euskarari BAI esan zioten EZ esateko aukera zutenean.
- **Elgoibarko berbetia jasotzea:** Bigarren etapari ekin eta laster erabaki genuen gure herriko euskara jaso behar genuela. Jesus Mari Makazaga filologo eta euskaltzale elgoibartarrarekin egon ginen, eta berehala ekin genion elkarlanari. Elgoibarko Izarrak bere esku zegoen guztia jarri zuen Makazagaren zerbitzura, eta bera izan da lana zuzendu eta burutu duena. Gure lana, esan bezala, Makazagari laguntzea izan da. Elkarlan horri esker, gure herriko euskara jasota geratu da betiko. Ez dakigu aurrerantzean zer egingo dugun Elgoibarko berbetia zabaltzeko, baina, momentuz, lehen pausoa eman dugu.
- **Herri mailako elkarteak izan arren, Euskal Herriari ere erreparatzea: Euskaldunon Egunkaria, BERRIA, Korrika, Ikastolak, ...** Gure zeregin nagusia euskara Elgoibarren sustatzea bada ere, badakigu euskarak ez daukala etorkizunik Elgoibarrera bakarrik mugatzen bada. Horregatik, Euskal Herri mailako euskararen aldeko ekimenari ahal dugun neurrian laguntzen saiatu gara; 20 urteotan nazio mailako hamaika ekimenetan hartu dugu parte. *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera-prozesuan parte hartu genuen 1990ean; gero, zoritxarrez, itxi egin zuten egunkaria, eta herriaren zati handi bat mobilizatzea lortu genuen *Euskaldunon Egunkariaren* alde. Azkenik, BERRIA sortzeko prozesuan ere lan polita egin genuen. Bestalde, zenbat autobus antolatu ote ditugu ikastolen aldeko jaietarako?! Aspaldian asko jaitsi da jai horietara joateko grina, baina sasoi batean zazpi autobus ere antolatzen genituen kilometroak jaira joateko (eta baita lau autobus ere Nafarroa Oinezarako). *KORRIKA*n ere edizio guztietan parte hartu izan dugu, eta horrelako antzerako beste jaietan ere gure aletxoak eskaintzen saiatzen gara. Elgoibarko euskaldunak gara, baina Euskal Herri euskalduna lortu nahi dugu.
- **Une gogorretan ere aurrera egitea:** Une gogorretan ikusten omen da batek zenbateko indarra duen, eta guk ere, zoritxarrez, izan dugu gure indarraren zenbatekoa erakusteko aukerarik. Toletxe taberna-proiektua itxi genuenean, diru-zulo latza egin genuen, eta elkarteko ateak ixteko zorian egon ginen. Baina, zorionez, zulorik beltzetik ere irteteko gauza ginela ikusi genuen. Bazkideen laguntzari esker, elkarteak ez zituen bere ateak itxi.

Zer ez dugu lortu?

- **Ez dugu elkarteak herriratzen asmatu:** Ez dugu Elgoibarko Izarraren *izena eta izana* behar beste herriratzen edo gizarteratzen asmatu. Lehen urteetan saiatu ginen Elgoibarko Izarra gizarteratzen, baina proiektuak indarrean jartzen hasi ginenean, haietan jarri ditugu foku guztiak (eta elkarteak ezkutuan geratu da). Proiektuak dira ezagunak eta estimazioa dutenak, baina errezeloa daukat elkartek ez dakela proiektuek besteko prestigiorik (suerte pixka bat izaten badugu, Topagunearen eskutik elkartearen gaineko ikerketa-lana egingo digu Aztiker enpresak urtea amaitu aurretik. Ikerketa horren ondoren jakingo dugu benetan herriak zelan ikusten duen Elgoibarko Izarra). Bateren batek esan dezake proiektuak direla benetan zaindu behar ditugunak, baina gure helburuetako bat euskaltzaleon komunitatea egituratzea bada, elkarte sendo eta indartsua behar dugu, gaudenak gustura egoteko eta ez daudenak erakartzeko. Elgoibarren badaude euskaltzaleak Elgoibarko Izarrako bazkide ez direnak, edo elkartearekin harremanik ez dutenak, eta horrek zer pentsatua eman behar digu.
- **Diskurtso propioa osatu eta zabaltzea:** Proiektuak garrantzitsuak dira, eta proiektu sendoak prestatu behar ditugu, baina elkarte bera ere proiektu bat da (proiektu guztien iturburua), eta horrek ere bere izaera eta diskurtsoa landu behar du. Proiektuak garrantzitsuak eta beharrezkoak dira, baina elkartearen izaera ere landu egin behar dugu. Ez dut uste “*euskararen aldeko euskara-elkarteak*” izatearekin nahikoa denik. Hori baino gehiago behar da herrian eta herritarren artean errotzeko. Idatzi genuen bere garaian elkartearen gaineko filosofia-txostena, baina gaur arte hor nonbait egon da ahaztuta.
- **Komunikazio-sisteman ez du asmatu:** Komunikazioan ez dugu behar beste asmatu, eta maila guztietan, gainera. Langile profesionali dagokienez, hasierako urteetan langileak gutxi zirenean, ondo asmatu genuen; langileen artean oso komunikazio eta harreman polita zegoen. Baina, gerora, langileen kopuruak gora egin zuen heinean, haien arteko komunikazioa huts egiten hasi zen. Elkartek ez zuen inolako komunikazio-sistematik definituta, eta hori asko nabarmendu da. Huts egin dugu, orobat, bazkide-militanteekin izan beharreko komunikazioan ere. Bazkide-militante mordo bat pasa da elkartetik 20 urteotan, baina ez ditugu *mimatu* behar beste (elkartearen helburuak eta filosofia azaldu; elkartean lanean segitzeko gonbitea luzatu ...). Momentuko lanetan gehiago zentratu gara, bazkide-militanteak elkarteratzen baino. Huts egin dugu, baita ere, bazkideekin izan beharreko komunikazioan. Elkartek duen kapitalik garrantzitsuena bazkideak direla daukagu nonbaiten idatzita, baina ez ditugu hala tratatu. Bazkideekin ezin gara akordatu Batzar Orokorra egiteko ordua iristen denean bakarrik. Toletxeko zorrak leporaino iritsi zitzaizkigunean bazkideekin akordatu ginen, eta izugarri ondo erantzun zuten, gainera, baina Elgoibarko Izarrak egunero gogoratu behar du bazkideekin, elkarte bat izatea nahi badugu behintzat. Eta, azkenik, aurretik aitatu dugun moduan, huts egin dugu herritarrekin izan beharreko komunikazioan.

Informazioa zabaldu dugu han eta hemen, eta jendeak izan du neurri batean gure berri, baina komunikazioa informazioa zabaltzea baino askoz gehiago da. Eta, gehienetan, informazioa zabaltzera mugatu gara.

- **Bazkide-kopurua handitzea eta haiek inplikatzeara:** Ez dugu lortu Elgoibarko Izarrako masa soziala (bazkideak) handitzea. Hainbat bazkide-kanpaina egin dugu, eta bazkide berri asko lortu dugu (200 inguru), baina duela 20 urte baino 50 bazkide gehiago baino ez gara. Bazkide asko hil egin dira (bazkide gehienak hasierako etapakoak ziren) eta, gainera, baja batzuk ere izan dira (kuota ordaintzen ez zutelako gehienak). Elkarteko proiektuetako erabiltzaileek edo hartzaileek gora egin dute etengabe (BARRENEko harpidedunen kasua dugu adibide argiena), baina Elgoibarko Izarraren gurdira igo diren elgoibartarrak behar baino gutxiago izan dira. Esan berri dudan moduan, oraindik ere euskaldun eta euskaltzale asko eta asko dago elkarteko bazkide ez dena.
- **Bazkideen inplikazioa mantentzea:** Ez dugu bazkide-militanteen parte-hartzea eta presentzia mantentzen asmatu. Elkartea sortu zenean bazkide-militanteak ziren elkarteko lanak egiten zituztenak, eta bigarren etapako lehen urteetan ere bazkide-militanteak eutsi zioten elkartearen tentsio-puntuari. Baina elkartea langile profesionalak kontratatzen hasi zenean, haiek joan dira poliki-poliki elkartearen zentroa hartzen. Gero eta garrantzia handiago hartu dute langile profesionalak, eta bazkide-militanteen pisua jaisten joan da. Ez da sekula desagertu bazkide-militanteen presentzia eta ardura, eta badaude aparteko lana egiten dutenak ere, baina gaur egun langile profesionalen arduraren dago Elgoibarko Izarra. Nik hala ikusten dut behintzat.
- **Hizkuntza-komunitatea osatzea:** Txepetxek esaten zigun hizkuntza-komunitatea osatzea eta egituratzea zela gure zereginetako bat. Herrietako euskaldunok eta euskaltzaleok komunitate moduan egituratu eta herrian eragitea. Baina gure komunitatea behar bezala osatu eta egituratu ez dugulakoan gaude. Elgoibarko Izarra osatzen dugunon hizkuntza-komunitatea ez dugu osatu, eta herri mailakoa ere ez. Jardun dugu elkarlanean euskalgintzako beste agente batzuekin, baina ez dugu herri mailako euskalgintza artikulatzeko saiakerarik egin (helduko diogu gai honi aurrerago).
- **Proiektu guztietan asmatzea:** Zaila edo ezinezkoa da proiektu eta egitasmo guztiekin asmatzea, eta guk ere izan dugu zulorik han eta hemen. Hutsik handiena, dudarik gabe, Toletxe taberna-proiektua izan da. Ilusio eta energia asko inbertitu genituen proiektu hartan, baina huts egin genuen. Hutsegite hark, gainera, kili-kolo jarri zuen elkartea bera ere. Hartu genuen kolpearen ondorioz, proiektuak zergatik huts egin zuen aztertzeke kemenik ere ez dugu bildu. Toletxe hor dago, ahanzturaren zakuan, baina elkarre honen historiako orri bat da. Orri beltza, baina gurea. Bestalde, ez dugu kultur eskaintza senda eta iraunkorra mantentzen asmatu. Elgoibarko Izarra kultur elkarre da (askok euskara-elkarre dela pentsatu arren), eta euskara eta euskal kultura sustatzeko sortu zen. Kultur eskaintza majorekin hasi ginen, eta oso urte oparoak ere izan ditugu, baina kultur eskaintzarena ez da elkartearen lehentasunen artean egon.
- **Lanpostu profesionalak herriko jendearekin betetzea:** Kontratudun langileen artean Elgoibarkoak ez diren langile asko daukagu gaur egun. 22 langile gaude kontratuarekin, eta horietatik 12 Elgoibartik aparte jaiotakoak dira (kontratudun langileen erdia baino gehiago da “kanpoko”). 92ko abenduan sinatu genituen lehen kontratuak, eta orduko langileak herrikoak ziren. Baina, gerora, Elgoibartik kanpo jaiotako langileei hasi ginen lekua egiten, eta azken urteetan asko ugaltu da Elgoibarkoak ez diren langileen kopurua. Beti nahi izan ditugu herrian jaiotako langileak, baina, kasu askotan, kanpoko langileak hartu behar izan ditugu derrigorrean. Beti egiten dugu deialdi publikoa langile bat hartu behar dugunean, baina batzuetan ez da herriko jenderik azaldu; eta beste batzuetan, berriz, herrikoen artean ez dugu guk behar genuen mailarik topatu.

- **Bailara mailako proiekturik gauzatzea:** Ez dugu sekula lehentasunen artean izan, baina, jardun dugu bailarako beste euskara-elkarteekin batera bailara mailako proiektu bati baino gehiagori tiraka. Ahaleginak hedabideetara zuzenduta egon dira, batez ere. Bailarako aldizkari bat egiteko prestakuntza-lanetan jardun genuen hasieran, eta, gero, bailarako telebistarekin jardun genuen. Aldizkariarena bertan behera geratu zen, eta telebistarena Hamaika Telebistakoen esku dago gaur egun. Lizentziak eskuratuta dauzkagu, baina Hamaikako lagunek deitzeko zain gaude kontu horri berriz ere heltzeko (hala erabakiko bagenu). Herri mailatik bailara mailara salto egitea ezinbestekoa izango dela entzun dugu baten baino gehiagotan, baina, momentuz, gure herrira mugatzen dira gure lanik gehientsuenak. Hala ere, BARREN proiektuak guretik 5 kilometrora dagoen Mendaroko herria ere harrapatzen du, eta gustura gaude han eman dituen emaitzekin.
- **Elkartearen izena eta izana behar beste prestigiatzea:** Sarri entzun dugu euskaldunok saltzaile txarrak garela. Ez dakigula garena edo egiten duguna saltzen edo komunikatzen. Guk ere huts egin dugun errezeloa daukat, eta ez dut uste 20 urteotan egin duguna behar bezala “saldu” dugunik. Horrek, besteak beste, elkartearen prestigioa behar baino beherago egotea dakar. Egitea ondo dago, baina egiten duguna gizarteratzen ere asmatu behar dugu.
- **Dirulaguntzen mendekotasunetik ihes egitea:** Bigarren etapari ekin genionean, dirulaguntzei esker osatzen genituen elkartearen aurrekontuak (erakunde publikoek emandako laguntzekin, batez ere), eta hogeitau urte pasa badira ere, oraindik ere aurrekontuaren erdia dirulaguntzei esker betetzen dugu. Bistan da dirulaguntzen mendekotasuna handia dela, eta hau oso arriskutsua izan daiteke. Dirulaguntzak behar ditugu, baina diru propioen iturria gehiago zabaldu behar dugu elkarteak ekonomikoki bideragarria izatea nahi badugu. Autofinantziazioa baxua daukagu gaur egun (% 52), eta hori handitzea ezinbestekoa izango dugu etorkizunean.
- **Lanerako ganorazko espazioak:** Elkarateak lehen etapan erositako egoitzarekin ekin genion bigarren etapari. Lokal txukuna zen, espazio majoa zuen, eta herrian ondo kokatuta zegoen gainera. Nahikoa zen garai hartako beharrak kontuan hartuta. Gero, BARREN astekaria martxan jarri behar genuenean, beste egoitza bat behar genuen eta Udalak herriaren erdigunean zegoen lokal bat laga zigun. Hura ere egokia zen garai hartan. Baina urteak aurrera joan diren bezala, beharrak ugaritzen eta aldatzen joan dira, eta gaur egun nahiko eskas gaude laneko espazioei dagokienez.

Zer lortu dugu?	Zer ez dugu lortu?
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elgoibarko Izarra ez desagertzea; elkartearen izena eta izana berriz ere gizarteratzea. ▪ Herritarrei euskararen aldeko lanean jarduteko aukera eskaintzea. ▪ Lantalde profesional sendoa izatea. ▪ Gure aurrekoek egindako lana jaso, gizarteratu eta goratzea. ▪ Euskalgintzako erreferente bat izatea. ▪ Bi proiektu sendo herrian errotzea. ▪ Udala euskalgintzan inplikatzeko. ▪ Elgoibar Euskal Herriko euskalgintzako mapan kokatzea. ▪ Lorpen txikiagoak: 251 agentek <i>gurean bai</i> esatea; Elgoibarko berbetia jasotzea; nazio mailako ekimenetan parte hartzea; une gogorrenetan ere aurrera egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkartearen herriratzea. ▪ Elkartearen diskurtso propioa barneratu eta zabaltzea. ▪ Komunikazio-sistema antolatzea. ▪ Bazkide-kopurua handitzea. ▪ Proiektu batzuekin asmatzea: Toletxe eta kultura. ▪ Komunitatea osatzea: elkartearen eta herriaren. ▪ Lanpostu profesionalak herriko jendearekin betetzea. ▪ Bailara mailako proiekturik gauzatzea. ▪ Elkartearen izena eta izana behar beste prestigiatzea. ▪ Diru-laguntzen mendekotasunetik ihes egitea. ▪ Elkartearen ondasunak handitzea.

Orain arte lorpen eta hutsune orokorrak zerrendatu eta azaldu baditugu, segidan elkarteko bi proiektu garrantzitsueni erreparatuko diegu. Beharbada gehien errotu diren bi proiektuak dira, eta, zergatik ez esan, herritarren artean estimazio handiena izan duten bi proiektuak direla esango nuke. Beraz, eta gehiago luzatu gabe, ikus dezagun bi proiektu horiekin lortu dugun garrantzitsua.

Zer lortu dugu BARREN astekariarekin eta elgoiBARREN.net atari digitalarekin?

Lorpenak zerrendatzen hasi aurretik, esan behar dut BARREN astekaria oso garrantzitsua izan dela Elgoibarko Izarrarentzat. Bigarren etapako lehen proiektua izan zen, eta oso ondo etorri zen ezkutuan zegoen elkarteak bere burua lotsarik gabe bistartzeko. Aurrekontu handiko proiektua zen, eta egin behar genuena astekaria baino astakeria zela ere esan zigun bateren batek; baina ez genuen etsi.

BARREN astekariarekin lortu duguna:

- **Proiektua martxan jarri eta hainbeste urtean maila altuan mantentzea:** Horrelako proiektu bat martxan jartzea ez da erraza. Zaila da, baita ere, martxan jarri eta jendearen gustukoa izatea. Eta are eta zailagoa da jendearen gustukoa den zerbait luzaroan mantentzea. Bada, guk lortu dugu BARREN astekariarekin. BARRENek estimazio oso polita izan zuen argia ikusi zuenean (nobedadea zelako ere bai, neurri batean), baina hasierako nobedadearen distira berehala pasatzen denez, maila ona eman behar da jendearen gustukoa izateko. Aztiker enpresak egin berri digun ikerketak zera baieztatu digu, besteak beste: herri guztiak ezagutzen duela astekaria, eta, gainera, aparteko estimazioa duela. 18 urte beteko ditu BARRENek abenduaren 24an (*edade maiorera* iritsiko da), baina jendeak hasieran beste maite du BARREN (edo gehiago). Herri mailako proiekturik garrantzitsuenetakoa dela esango nuke, eta, gainera, euskaratik eta euskaraz egiten da.

- **Herri mailako proiektu erreferente eta komunikatiboa izatea:** Herri mailako proiektua da BARREN. Herri guztira zabaldua dago (oso etxe gutxi daude Elgoibarren BARREN jasotzen ez dutenak) eta erreferente garrantzitsua da gure herrian. Gure herriko proiektu komunikatiboa da eta, BARRENi esker, elgoibartarron arteko distantziak lehen baino txikiagoak dira. BARRENEk elkarren berri ematen digu, eta Elgoibar lehen baino herriagoa da.
- **Proiektu parte-hartzailea eta plurala izatea:** BARREN ez da lau katuk egindako lanaren emaitza, edo bospasei profesionalen ondo egindako lanaren fruitua. BARREN aldizkaria elgoibartarron artean egiten dugu. Kolaboratzaile asko eta finak izan ditugu elkarriketak egiteko; erretratu zaharrak herritarrek ekartzen dizkigute astero-astero; publizitate-orriak herriko merkataritza-etxeek betetzen dituzte; zorion-agurreko orria betetzeko astero etortzen da hamaika lagun; dozenaka lagunek idatzi du gutunen bat; ehunka lagun izan dira iritzi-artikuluen bidez beren iritziak eman dituztenak; ia 4.000 lagun egon dira prest kale-inkestan azaltzeko ... Horiek denak egiten dute BARREN, eta, akaso, horregatik dauka halako estimazioa: denon artean egiten dugulako. Gainera, ez da herriko sektore jakin bati zuzendutako proiektua. BARRENi adin, sektore, ideologia eta klase guztietako jendeak zabalzen dio ostiraletan portaleko atea.
- **Proiektua gertukoa, zuzena eta konfiantzazkoa izatea:** BARRENera iristea oso erraza da, eta hala aitortu dute irakurleek Aztikerrek egindako ikerketa-lanean. Jendea lasai eta gustura joaten da BARRENera, eta etxean bezala sentitzen da bertan (izango al dira irakurleen etxeak hura baino txukunagoak!). Telefonoz, e-mailez edo BARRENEko egoitzara azalduta, etengabekoa da herritarrek BARRENEkin duten harremana, eta hori oinarri-oinarrizkoa da horrelako proiektu batek arrakasta izateko.
- **Irekia eta autonomia izatea:** BARREN ez da euskaldunentzat bakarrik; ez da abertzaleentzat prestatutako astekaria; BARREN ez da ezkerrekoekin pentsatuta egin; BARREN Elgoibarko berri euskaraz jaso nahi duten guztientzat da, eta irekita dago barruan gustura sentitzen denarentzat. Ez da erraza horrelako proiektu bat etiketarik gabe egotea 18 urte pasa ondoren, baina guk lortu dugu (29). BARREN irekia eta autonomia da. Elgoibarko Izarrarena da, eta elkarteak erabakitzen du BARRENEk egin beharrekoa. 18 urteotan izan dugu presiorik handik eta hemendik gure norabidea okerra zela esanez, baina guk gureari eutsi diogu. Askotan hanka sartuko genuen, dudarik gabe, baina ez dugu ezer ere egin bateren batek agindu digulako.
- **4.000 etxetan BARREN eskatzea:** BARREN doan da, eta hori izango da hainbeste jendek eskatzearen arrazoietako bat, baina merezi duen neurrian baloratu beharko genuke 4.000 etxetatik jasotzea BARRENEko harpidedun izateko eskaria. 1992an Elgoibarko Izarrako bazkideei bakarrik bidali genien, eta gainontzekoek eskatu egin dute. 18 urteotan, astero-astero, ondo itxi gabeko txorrotik tantak jausten diren moduan, etengabekoa izan da harpidetzen jarria.

(29) Irakurleen % 90ek BARREN plurala eta neutroa dela dio. Hala ere, 18 urteotan batzar bat baino gehiago izan dugu PNVrekin eta Ezker Abertzalearekin neutraltasunaren gaia dela-eta.

- **Elgoibartik kanpo dauden herritarrak gure herriari lotuta mantentzea:** Lehen esan dugu Elgoibar txikiagoa dela BARRENI esker; herri barruko distantziak txikitu egin direla. Baina hori ez da herri barruan bakarrik gertatu. Mundua ere txikiagoa da. 382 lagunek jasotzen dute BARREN astero Elgoibartik kanpo herriarekin izan nahi duten loturari eusteko. Madrilen bizi den elgoibartar batek esaten zigun moduan, *“herrian bizi zaretenok ez diozue BARRENI daukan balioa ematen”*.
- **Herriko kazetariei estreinako lana egiteko aukera eskaintzea:** Herriko hamaika kazetariren lehen lantokia izan da BARREN. Batzuek ikasketak amaitu ondoren hasi ziren lanean kontratuarekin. Beste batzuek, berriz, ikasten ziharduten bitartean jardun zuten gurean kolaboratzaile moduan. Elgoibarko kazetari askoren lehen esperientzia izan da BARREN, eta harrobi-lan hori medio handiek ere baloratu beharko lukete.
- **Hobetze- eta garatze-prozesuari eustea:** Hasierako BARRENEk eta gaur egungoak ez dauka zerikusirik. Umea asko aldatu da, eta arestian esan dugun moduan, adin nagusira iritsiko da 2010eko abenduaren 24an. BARREN, hasieran, txikia zen, ez zuen kolorerik. Baina urteak aurrera egin duten heinean, aldatzen joan da, hobetzen. Hiru urtetik behin berritu dugu BARRENEn diseinua eta edukia.
- **Herri mailako publizitateari ate bat zabaltzea:** Sorrerako txostenari begira jardun dut, eta honako hau irakurri dut: *“BARRENEk herri mailako publizitatearen eragile izan behar du. Merkatari-etxe indartsuak salbu, Elgoibarko merkatari eta enpresa gehientsuenek ez dute publizitaterik egiteko aukerarik. Herri-aldizkariak aukera paregabea eskainiko die herritarrengana iristeko”*. Hori zen aldizkariaren helburuetako bat, eta lortu dugu. Ia 1.100 merkatari-etxe izan dira BARRENEn publizitatea egin dutenak, eta leiho ezin aproposagoa izan dute herritarrek haien eskaintzen berri izateko.
- **Anonimoei lekua egitea:** Gainontzeko medioetan sekula irtengo ez ziren herritar asko irten da BARRENEn. Herriko ehunka anonimo edo izengabekori egin diogu lekua, eta horiek ere gure herriko historiako protagonista izan dira egun batez bada ere. *“Ikusi zaitut BARRENEn”* jendek askok entzun du 20 urteotan, eta horrek, besteak beste, herritarren arteko balizko diferentziak txikitzeke ere balio du.
- **Hori dena euskaraz izatea:** Eta hori dena euskaraz egin dugu; gure hizkuntzan. Eta gure hizkuntzan konpartitu dugu proiektu hau herriarekin. Herriarekin diogu, euskaldunekin eta euskaraz ez dakitenekin ere konpartitu dugulako. Elgoibartarrok asko irabazi dugu BARRENEkin, eta horregatik irabazi du hainbeste euskarak.

Zer irabazi du, bada, euskarak?

- **Funtzio garrantzitsu bat betetzea:** Komunikazioaren gizartean bizi gara, eta denok ere ondo dakigu hedabideek zer garrantzi duten gure artean. Eta aspaldion, gainera, hedabide lokalek aparteko pisua hartu dute. Herriko hedabiderik zabalduena eta eragingarriena euskara hutsean izatea izugarritzko lorpena da euskararentzat. Euskara da bertako informazioa zabaltzeko hizkuntza, eta hori oso funtzio garrantzitsua da.

- **Jendeak euskaraz irakurtzea eta idaztea:** Jendeak euskaraz idazteko eta irakurtzeko ohitura sustatu dugu elgoibartarren artean (kasu batzuetan irakurtzeko ohitura ere bai!). Jende asko dago BARRENi esker hasi dena euskaraz irakurtzen eta idazten. Etxe askotan, gainera, eta horrek ez gaitu pozten, BARREN da sartzen den euskarazko aldizkari bakarra; BARRENeke irakurleen % 90ek ez du euskarazko beste aldizkaririk jasotzen.
- **Publizitatea euskaraz egitea:** Goraxeago herri mailako publizitatearen garrantzia azpimarratu dugu, eta horren garrantzia areagotu egiten da hori euskaraz egiten bada. BARREN ezagutu arte jende batek ez zuen imajinatu ere egingo publizitatea euskaraz egin zitekeenik. Orain bai. Elgoibarko merkatari batek orain badaki zabaldu berri duen denda hori ezagutzera emateko BARREN dela mediorik eragingarriena. Eta badaki euskaraz egitea ez dela oztopo bat. Publizitatez inguratuta gaude, eta euskarak irabazi beharreko beste funtzio bat lantzen dihardugu.
- **Erdaldunak euskararekin harremanetan jartzea:** Lorpen hau ondo azpimarratu nahi dut. Euskalgintzan dihardugunok erdaldunengana ez garelara iristen entzun izan dugu askotan, eta arrazoiarekin gehienetan, baina ez da BARRENen kasua. Elgoibarko erdaldun gehienek asko estimatzen dute BARREN. Ezin dute irakurri, baina beren eskuetan hartzen dute, erretratuei erreparatzeko bada ere. Batzuek, gainera, euskaraz badakiten seme-alaben laguntzarekin “irakurtzen” dute BARREN. Gainera, oso-oso prest egoten dira (euskaldunak baino gehiago, askotan), BARRENeke hainbat ataletan irteteko (*kale-inkesta* atalean oso argi ikusten da hori). BARRENeke erdaldunak euskarara erakartzea lortu du, eta horrek pisu handia du euskararen normalizazioari begira.
- **Euskara beharrezkoa izatea Elgoibarko berri izateko:** Euskara oso gauza gutxitarako da beharrezkoa, zoritxarrez, baina begi-bistan dugu horietako bat. Elgoibarko hedabide herrikoia eta zabalduenak dioena jasotzeko euskara jakin behar da. Edo euskaldun bat izan behar da aldamenen. Eta 20 urteotan BARRENen gaztelaniari lekua egiteko eskariak jaso baditugu ere (BARREN erdaldunen gustukoa dela erakusten digu horrek), nire ustez erdaldunek ere onartu dute BARRENeke euskara hutsean izan behar duela. Pena dute BARREN irakurri ezin dutelako, baina espazio hori euskararentzat dela onartzen dute.
- **Herria eta BARRENen arteko beharra sortzea:** 18 urteko ibilbidearen ondoren, bien arteko hautsi ezineko harremana sortu dela uste dut. Herriak BARREN behar du; ostiralero zain dago aste horretan zer esango dion irrikaz. Eta BARREN ere etengabe dago herriari begira. Herrian baitago notizia; herritarren artean baitaude asteroko protagonistak. Kasu honetan, kateak ez dira ebaki beharrekoak.

BARRENeKin lortu ez duguna:

Elgoibarko Izarraren proiekturik arrakastatsuenak ere baditu bere zulotxoak. Ikus ditzagun batzuk:

- **Proiektua bideragarria izatea ekonomikoki:** BARRENeK goitik behera aldatu zuen Elgoibarko Izarraren egoera ekonomikoa. Urtean 800.000 pezeta inguruko aurrekontua izatetik, ia 24 milioi pezetako aurrekontua izatera pasa zen. Arrisku handiko proiektua zen, baina irabazteko arriskatu egin behar da. Egiari zor, hasierako urteetan nahiko ondo betetzen genituen aurrekontuak. Handik eta hemendik lortutako diruekin gastuei aurre egiteko moduan izaten ginen. Gerora, baina, langileen soldatak eguneratzen eta egokitzen hasi ginenean (ez dira, hala ere, aparteko soldatak), aurrekontuei aurre egiteko arazo asko genuela konturatu ginen. Eta azken urteotan, urtero galdu dugu diru pixka bat proiektuarekin. Badakigu komunikazio-enpresa askoren arazoa dela hori, baina, momentuz, ez dugu lortu proiektua ekonomikoki bideragarria izatea.
- **Lantoki duin bat izatea:** Aurrerago esan dugun bezala, Udalak BARREN martxan jartzeko eskaini zigun lokala oso egokia zen orduko beharretarako. Herriaren erdigunean zegoen, eta tamaina aldetik ere ez zegoen gaizki. Lanean hasi eta laster konturatu ginen, baina, lokalak arazoak eman behar zizkigula. Deba ibaiaren kontra dago, eta segituan hasi ginen hezetasun-arazoak izaten. Gerora, gainera, usain-arazo larriak ere izan ditugu (zabor-ontziak jarri zituzten sarrerako atearen parean). Gainera, Merkatu plaza alboan dago eta bertako langileen autoak izaten ditugu ate parean aparkatuta, jendearen joan-etorria oztopatuz. Eta, amaitzeko, gaur egun espazio-arazoak ere badauzkagu; langile-taldea ugaritu egin da eta ez gara behar bezala sartzen. Egon gara baten baino gehiagotan Udalarekin arazo horri soluzioa emateko, baina, momentuz, ez dugu erantzun positiborik jaso.
- **Bestelako zerbitzu eta ekimenak mantentzea:** Astekaria bera izan da BARREN proiektuaren erdigunea, baina hasierako urteetan ez zen ekimen bakarra izan. Astekariaz gain, beste ekimen eta zerbitzu batzuk ere eskaintzen genituen. Hala, ekimenen artean, kirolBARREN edo BARREN sariak azpimarra ditzakegu. Ekimen politak ziren, baina ez genien luzaroan eutsi. Bestalde, bestelako zerbitzu batzuk ere izan ditugu: erretratu zaharren bilduma; gida komertziala; gida turistikoa ... Gida Komertzialari bakarrik eutsi diogu, eta kasu horretan ere kosta egiten zaigu urtero-urtero argitaratzea. Aspaldian, astekarian bakarrik gaude zentratuta, inguruko guztiak ahaztuta, eta beharbada hala izan behar du, baina hasierako urteetan astekariarekin batera beste ekimen eta zerbitzu batzuk ere eskaintzen genizkion herriari.

*elgoi*BARREN.net atari digitalarekin lortu duguna:

Atari digitalarekin denbora gutxiago daramagu lanean eta, momentuz, ez du BARRENEk daukan estimaziorik. Hala ere, atariak ere bere bidea egiten dihardu, eta merezi du aipamen bat egitea. Teknologia berriak gainean dauzkagu. Gustatu ala ez, gure artean daude, eta haiekin bizitzen ikasi behar dugu. Eta, gainera, adi egon behar dugu eta gure helburuak betetzeko aprobetxatu behar ditugu.

- **Teknologia berriak herriaren eta euskararen mesedetan jartzea:** Pixka bat kosta bazitzaigun ere, guk ere egin dugu gure ahalegina teknologia berriak herriaren eta euskararen mesedetara jartzeko. Herriko berri emateko ataria sortu genuen, eta, harrezkero, egunero-egunero ematen ditugu bizpahiru notizia edo berri. BARREN astekariaren osagarri izateko borondatearekin sortu genuen ataria. BARREN astekaria da, astean behinekoa, eta atariarekin egunerokotasuna bete nahi dugu. Momentuko beharrari erantzun nahi dio atari digitalak.
- **Jende askorentzat informazio- eta notizia-iturri izatea:** Esan dugu atariak ez duela BARRENEk duen estimaziorik, baina jende askoren informazio iturria da. Egunero-egunero 750 bisitari izaten ditugu, batez beste, astelehenetik ostiralera, eta, gainera, 260 harpidedun dauzkagu guk notizia ematen dugun une berean haiek beraien ordenagailuetan jasotzeko.
- **Munduko edozein tokitatik gure berri izateko aukera eskaintzea:** Teknologia berriek mundua txikitu egin dute, eta distantziak ez dira lehengoak. Elgoibarren goiz batean istripua izan bada, behar bada New Yorken dagoen hark Madalan bizi denak baino lehengo jakingo du. Gure atariari esker, munduko edozein tokitatik une oro jaso daiteke Elgoibarko berri.

Zer ez dugu lortu?

- **Proiektua parte-hartzailea izatea:** Proiektu hau prestatu genuenean garbi geneukan hartu-emaneko proiektua nahi genuela. Ez genuen, besterik gabe, informazioa zabaltzeko ataria egin nahi. Joan-etorriko komunikazioa sortu nahi genuen, eta irakurleen parte-hartzea zen helburuetako bat. Hasieran hala izan zen, eta aparteko arrakastarekin abantatu ginen, gainera. Jendeak komentarioak egiten zituen, eta iritziak ematera ere animatu ziren asko eta asko. Baina laster topo egin genuen Internetek daukan arazo batekin: Trol-ekin, hain zuzen ere. Atariari min egiteko helburuarekin hasi zen erabiltzaile bat, eta urak bere onera ekartzeko hamaika ahalegin egin bagenuen ere, alferrik izan zen. Azkenean, pena handiz, jendearen parte-hartzea arautu egin behar izan genuen, eta horrek asko-asko jaitsi zuen jendearen parte-hartzea. Orduetik informazioa zabaltzera mugatzen da gure jarduna, batez ere. Parte-hartzea badago blogetan, baina ez da hasieran guk nahi genuena.
- **Internet-erabiltzaileak harrapatzea:** Egunero Interneten ibiltzen direnen erdiak ez du gure ataria ezagutzen. Hor hutsune bat dugula ikusi dugu. Gainera, teknologia berrietan gazte-jendea dabil batez ere, eta garrantzitsua litzateke gazte-erabiltzaileak gure sarean harrapatzea. Momentuz, baina, ez dugu guk desio beste lortu.
- **Ataria ekonomikoki bideragarria izatea:** Ataria defizitarioa da. Berez medio merkea da, baina pertsonal-gastuei aurre egin behar zaie, eta gure kasuan ez dugu lortu. Publizitatea lortzeko saiakeraren bat egin dugu, baina orain arte ez dugu fruiturik jaso.

Haurrak eta Gazteak Arloa:

BARREN astekariaren ondoren, *Atxutxiamaika* aisialdi-proiektua izan da, akaso, herritarren artean erabiltzaile gehien eta estimazio handiena izan duen proiektua. *Atxutxiamaika* taldea 1995ean aurkeztu genuen jendaurrean, eta, gerora, anai-arreba gehiago ekarri dizkiogu, gaur egungo Haurrak eta Gazteak Arloa familia osatu arte: *Kiribilka*, euskara-errefortzuak eta ludoteka txikientzat, eta *Kuadrillategi*, gaztelekua eta Gazte Informazio Bulegoa, nerabeentzat. Ikus dezagun Haurrak eta Gazteak Arloarekin lortu duguna.

Zer lortu dugu?

- **Aisialdiko erreferente izatea:** Zenbat ume pasa ote da guretik 15 urteotan?! Asti gehiagorekin jasotzeko moduko datua izango litzateke hori. *Atxutxiamaika* antolatutako aisialdiko erreferentea da Elgoibarko txikientzat eta horien gurasoentzat. Kasu honetan ez dut zalantzarik erreferentea baden ala ez erabakitzeko orduan. Eta beste horrenbeste gertatzen da *Kiribilka* programarekin. Gure herriko txikiak Kiribil noiz iritsiko zain egoten dira ostiraletan (Kiribil karakola da programako maskota). Eta ludotekak ere gero eta indar handiagoa du. Denbora gutxi daramagu lanean ludotekan, baina ume mordo bat arrimatzen zaigu egunero. Eta euskara errefortzuetan ere urtero-urtero izaten ditugu ume pila bat beren euskara-maila hobetzeko. Ikusten duzuen moduan, gure herriko txikiak eta haien gurasoen erreferenteak gara. Nerabeekin ere lan asko egin dugu, baina, kasu honetan, ez dugu hainbeste lortu. Adin-tarte berezia da nerabearoa, eta horiekin lan egitea zailagoa da (aurrerago sakonduko dugu gehiago gai horretan).
- **Aisialdi-eskaintza integrala osatzea:** Gure txikiak aisialdi eskalduna eskaintzeko prestatu genuen *Atxutxiamaika*, baina aisialdi-eskaintza integrala prestatzea zen gure helburua. Neurri batean lortu dugula esan dezakegu. Urtea bete duten haurrak izaten ditugu Kiribilekin jolasean, eta, momentu honetan, 16 urte bete arte izango du zer aukeratua eta zertaz gozatua gurean. Gainera, 20 urteotako erretratu-errepasoa prestatzen niharduela, zera ikusi dut: *Atxutxiamaikan* ume moduan jardundako asko eta asko taldeko hezitzaileak dira gaur egun. Txikitan *Atxutxiamaikan* jaso zutena bueltatzen dihardute orain.
- **Aisialdiari garrantzia eta duintasuna ematea:** Aisialdiko zuzendari batek behin esan zidan moduan, “*aisialdiak ez dauka prestigiorik Euskal Herrian. Adibidez, oso jende gutxi bizirik da aisialdian lan egitetik. Hasi dira gauzak aldatzen, baina asko falta zaigu kataluniarren parera iristeko*”. Aisialdia umeekin jolastea baino askoz gehiago da, eta hizkuntz helburuekin batera, bizitzarako hain garrantzitsuak diren beste hainbat balio lantzen dira (hezkidetzak, kulturartekotasuna, partaidetza eta euskaltasuna dira gurean landu nahi ditugun balioak). Elgoibarko Izarran ere jabetu gara honetaz, eta gure esku dagoena egiten dihardugu sail horri daukan garrantzia eta prestigioa emateko. Besteak beste, arloan lanean diharduten langileen lan-baldintzak hobetzen saiatu gara; bai proiektuko zuzendariena, eta baita hezitzaileena ere.

- **Programa eta ekintzen jarraikortasuna:** Aurretik esan dugun moduan, 2005ean aurkeztu genuen *Atxutxiamaikea*, eta orduan hasi ginen aisialdirako jarduerak eta programak eskaintzen. Udako eskaintzekin hasi ginen; gero, zapatuetako programak ere prestatu genituen; Aste Santukoak etorri ziren geroago; Gabonetakoak ... Hamabost urtean aberasten eta osatzen joan gara ekintzak eta programak, eta ez dute etenik izan. Horrelakoetan zailena ez da izaten hastea, gero mantentzea baizik. Gurean, zorionez, programazio sendoa eta iraunkorra izan dugu uneoro.
- **Udalaren inplikazioa eta elkarlana:** Lehen ere esan dugu Udala elkartearen aldamenean izan dela 20 urteotan, baina arlo honetan areagotu egiten da Udalaren garrantzia. Udalak Gazteria Batzordea osatu zuenetik, etengabekoa izan da Gazteri Sailaren eta gure arteko harremana eta elkarlana. Eta zer esanik ez, Udalak bere ekipamenduak prestatu eta Elgoibarko Izarrak kudeatzen dituenetik. Garrantzitsua begitantzen zaigu administrazioaren eta herri-ekimenaren arteko elkarlana sustatzea, eta kasu honetan bete-betean eman da hala.
- **Herriko gazte askoren topalekua izatea:** Askotan umeak eta nerabeak jartzen ditugu aisialdiko proiektuen erdigunean, eta hala izan behar du, seguruenez, baina lekutxo bat gorde nahiko genieke aisialdiko hezitzaileei. Proiektu honi esker Elgoibarko 200 gaztek baino gehiagok izan du umeekin eta gaztetxoekin lan egiteko aukera. Euskararen alde egiteagatik arrimatuko ziren batzuk, eta aisialdia gustukoa zutelako beste batzuk, baina denek amaitu dute lan bera egiten. Eta ez pentsa hezitzaileak ematera bakarrik etortzen direnik gurera. Haietako batek esan zidan moduan, *“hezitzaile moduan pasa ditudan momentuak bizitza osorako geratu zaizkizkiz”*. Hezitzaileen lanean gauza eta balio asko pilatzen da (aisialdia, lagunak, lana, euskara ...), eta, behar bada, horregatik izan dugu urtero 25-30 laguneko hezitzaile sare sendoa. Hori bai, udalekuak iristen direnean beti pasatu izan dugu estuasunen bat, baina hori ez da hezitzaileek ez daukagulako, ume eta gaztetxo andanak izena ematen duelako baizik (udan 51 hezitzailek jarduten du lanean gurean, bataz beste).
- **Hurbiltasuna eta goxotasuna:** Bai umeak, bai gaztetxoak eta baita hauen gurasoak ere, etxean moduan daude gurera etortzen direnean aisialdiko jardueraren batean izena ematera. Ateak eta telefonoak beti daude irekita haientzat, eta gurekin daudenean gozo hartzen ditugu. Aisialdiko programarik onenak besteko garrantzia dauka hartu-emanak, eta saiatzen gara gurera datorrena goxo hartzen.
- **Lantalde profesional sendoa:** Lehen esan dugun moduan, Euskal Herrian aisialdiak oraindik ez dauka aparteko prestigiorik, eta, beharbada, horregatik izango da hamabost urtean izan dugun aisialdiko zuzendarien joan-etorria. Zuzendari bakoitzarekin bizpahiru urteko zikloak bete ditugu, eta honek, nire ustez, ez dio mesede egiten proiektuari. Ez dut esan nahi zuzendari batek bizitza osoa eman behar duenik gurean, baina zuzendarien joan-etorri txikiagoa nahiko nuke. Gaur egungo lantaldea lau lagunek osatzen dute (hiru zuzendarik eta koordinatzaile batek), eta talde sendoa eta kualifikatua da. Nahiko genuke luzaroan jardutea gurean, eta gure esku dagoena jarriko dugu hori horrela izan dadin. Baina kasu honetan ere bada laino beltzik: hiru zuzendariak Elgoibartik kanpokoak dira. Hasieran herriko zuzendariekin jardun genuen, baina azken urteotan erbestera jo behar izan dugu zuzendari bila.

- **Proiektua ekonomikoki bideragarria izatea:** Bateren bat harrituko da, akaso, baina gaur arte ez dugu diru-arazorik izan aisialdiko proiektuak finantzatzerakoan. Dezenteko diru-kopuruak mugitzen ditugu (368.000 euroko aurrekontua daukagu 2010ean), baina hedabide sailean baino dezente errazago betetzen ditugu aurrekontuak. Alabaina, kasu honetan ere diru-laguntzen mendekotasuna handia da, eta saiatu beharko dugu beste diru-iturri batzuk ere zabaltzen.
- **Elgoibartik kanpo ere erreferente izatea:** Gure proiektuak Elgoibarko haur eta gaztetxoekin lan egiteko prestatu ditugu, baina azken urteotan konturatu gara Elgoibartik kanpo ere jaso nahi dituztela gure zerbitzuak. Udalekuetan, batez ere, handik eta hemendik deitzen digute beren seme-alabak gurekin joan nahi dutela esateko. Herrian bagara erreferente eta, orain, herritik kanpora daudenek ere ikusten gaituzte.

Segidan, hizkuntzaren ikuspegitik zer lortu dugun aztertuko dugu:

- **Txikienen aisialdi antolatua euskalduna izatea:** SIADECOK 1990ean egindako azterketan bi hutsune larri sumatu zituen aisialdiari dagokionez: aisialdi-eskaintza urria zegoela gure herrian, eta euskarak ez zuela behar besteko presentziarik Elgoibarko aisialdian. Bi hutsuneak betetzen saiatu gara, eta gaur egun zaila da euskarazkoa ez den antolatutako aisialdi-eskaintzarik topatzea Elgoibarren.
- **Inguru erdalduna duten umeei gune euskaldunak eskaintzea:** Kanpotik Elgoibarrera etorritako jende asko dator gurera beren seme-alaben izen-abizenak ematera. Eta kasurik gehientsuenetan, gainera, arrazoi nagusia euskara izan dela esatera ausartuko naiz. Haien seme-alabak euskaraz ondo moldatzea da kanpotik datozen gurasoen arduetako bat, eta badakite bide horretan aurrera egiteko makulu bat topatuko dutela gurean. Elgoibarko ikastetxeetan D erdua bakarrik dago 16 urtera arte, baina haiek ere badakite ume bat ezin dela ikastetxeko gelan bakarrik euskaldundu.
- **Gazteak euskararen mundura ekartzea:** Hezitzaileen kasua atal honetan ere aztertu nahi dugu. Elgoibarko gazte askok jardun du aisialdi euskaldunean lanean, eta horrek bere eragina izan behar du hezitzaile bakoitzaren baitan. Hori sinistu nahi dut nik behintzat, eta gurean lan egin duen hezitzaile hori euskararekiko motibazio bereziarekin geratu dela pentsatu nahi dut. Hala ere, berehala ikusiko dugun moduan, hezitzaileekin egin genezakeena baino askoz gutxiago egin dugulakoan nago.

Zer ez dugu lortu?

- **Gurasoen parte-hartzea:** Seme-alabak apuntatzera datozenean bakarrik gogoratzen gara gurasoekin. Hamabost urteotan hartzaile pasiboak izan dira, eta gurasoen parte-hartzea gehiago sustatu behar genuen. Prestatu izan dugu zerbait haientzat, baina ez da aintzat hartzeko modukoa 15 urteko ibilbidea izan dugula kontuan hartzen badugu. Nire ustez, programak prestatzerakoan gurasoen iritzi eta aholkuak eskatu behar genituen; ekintza eta jardueretan gurasoen parte-hartzea bultzatu behar genuen; gurasoei zuzendutako programa berezi gehiago antolatu behar genuen ... Gurasoak dira haurren erreferente nagusiak, eta ahaztu egin ditugun errezeloa daukat.
- **Hezitzaileak elkarteratzea:** Esan dugu lehen herriko 200 gaztek baino gehiagok jardun duela hezitzaile-lanetan gurean. Aisialdiko programetan lan egin dute, baina ez ditugu Elgoibarko Izarrara ekarri edo erakarri. Ez diegu Elgoibarko Izarraren helburuak eta funtzioak behar bezala azaldu, eta hezitzaile-lanak amaitu dituztenean elkartetik urrutiratu dira, gehienak bazkide badira ere. Nire ustez, aukera paregabea galdu dugu herriko gazte haiekin elkarrean eta euskararen suaren bueltan dantzan jarduteko.
- **Nerabeengan nahi beste eragitea:** Txikienekin hasiera-hasieratik asmatu bagenuen ere, nerabeengan eragitea gehiago kosta zaigu. GAZ-T programa martxan jarri genuenean ez genuen gaizki lan egin, baina ez genituen helburuak betetzen. Proiektua bertan behera laga eta *Kuadrillategi* programa ekarri genuen 2006an Elgoibarrera. *Kuadrillategi* parte-hartzea handia izan da urtero, baina programak dituen hizkuntz helburuak ez dira guk nahi bezala bete, eta, orain, nerabeei zuzendutako programa berria prestatzen dihardugu. Azkenik, gaztelekuan 2007ko urrian hasi ginen lanean, eta gustura bagabiltza ere, ez dauka, adibidez, ludotekak duen arrakastarik. Bistan da nerabeengana arrimatu garen bakoitzean lur gogorra zapaldu dugula. Zergatik ez dugu asmatu nerabeekin? Arrazoiak asko eta diferenteak izango dira, seguruenik, baina horrek beste proiektu bat idazteko beste emango liguke.

Zer lortu dugu?	Zer ez dugu lortu?
<ul style="list-style-type: none">• Aisialdiko erreferente izatea.• Aisialdi-eskaintza integrala osatzea.• Aisialdiari garrantzia eta duintasuna ematea.• Programa eta ekintzen jarraikortasuna.• Udalaren inplikazioa eta elkarlana.• Herriko gazte askoren topalekua izatea.• Hurbiltasuna eta goxotasuna.• Lantalde profesional sendoa.• Proiektua ekonomikoki bideragarria izatea.• Erbestean ere erreferentzia izatea.• Txikienen aisialdia euskalduna izatea.• Inguru erdalduna duten umeei gune euskaldunak eskaintzea.• Gazteak euskararen mundura ekartzea.• ...	<ul style="list-style-type: none">▪ Gurasoen parte-hartzea.▪ Hezitzaileak elkartera ekartzea.▪ Nerabeengan eragitea▪ ...

20 urteotan egindakoaren balorazioa, laburbilduz

Elkarteak asko egin du 20 urteotan, eta egindakoa, oro har, ondo egin dela uste dut. Eta lorpenak ere asko eta handiak izan direla begitantzen zait. Baina ondo zaindu beharreko kontu batzuk oso solte laga ditugulakoan nago: komunikazioari lotutakoak, adibidez.

Bestalde, nire ustez garrantzi handiegia eman diogu egiteari, eta oso gutxi erreparatu diogu izateari. Elgoibarko Izarrak asko egin du 20 urteotan, baina neurri berean hazi al da elkarte moduan? Egin dugunaren mailako dimentsioa al dauka elkarteak herritarren artean? Ezetz esango nuke.

Herritar asko eta asko pasa da Elgoibarko Izarratik 20 urteotan, eta hori seinale ona da, baina jendea pasa egin da, ez da geratzeko etorri. Jende asko arrimatu da elkartera, baina oso gutxi geratu da bertan.

Proiektuak eta egitasmoak, orokorrean, sendoak dira eta estimazio handia dute; erabiltzaileak ere mantendu edo igo egiten ditugu. Baina Elgoibarko Izarra, egitasmo eta proiektu guztien enbor moduan, ez da herritarrengana nik nahiko nukeen indarrarekin iristen. 20 urte pasa ondoren 50 bazkide gehiago baino ez gara, adibidez.

Elgoibar euskaldunagoa da duela 20 urte baino, dudarik gabe. Ezagutzari erreparatzen badiogu, adibidez, gora egin dugu: euskaldunak eta ia-euskaldunak % 66 ginen 1991n, eta % 75 ginen 2006an. Eta erabilerari kasu egiten badiogu, berriz, % 20ko kale erabilera zen 1990ean, eta % 41,58koa izan da 2010ean egindako azken neurketan. Hori ez da Elgoibarko Izarrari esker bakarrik, noski, baina guk ere emana eskaini dugu euskararen ontziak gora egin zezan Elgoibarren.

Lagun bati entzun nion moduan, *“Elgoibar diferentea izango litzateke Elgoibarko Izarrarik gabe”*. Elgoibarko Izarraren proiektu batzuk gabe bai behintzat. Esaldi horri bueltaka dihardut, eta ematen duen baino pisu handiagoa duela uste dut. Elkarteak bere arrastoa laga du gure herrian, eta beste lekuren batean esaten nuen moduan, akaso hemendik urte batzuetara, distantzia gehiagora gaudenean, hobeto baloratuko da Elgoibarko Izarrak gure herriari emandakoa.

Egin dugu bidearen zati bat, baina asko da egiteke geratzen zaiguna; gehiegi, nire gusturako. Saiatu beharko dugu bidea ahal dugun gehien moztzen; aurreko 20 urteotan gaizki egin ditugunak zuzentzen baditugu, beharbada bide luzeagoa egingo dugu hurrengo 20 urteetan.


7.- Teorian bai, baina praktikan?

Duela 20 urte bide honi ekiteko bidelagun izan genituen teoria soziolinguistikoak eta elkarreak egindakoa zer neurritan uztartu ditugun aztertzen saiatuko naiz atal honetan. Saiatuko naiz azalpen teoriko arraroetan ez galtzen, eta, ahal dudan neurrian, oinarriko printzipioei kasu egin diegun ala ez aztertuko dut.

Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetxen* teoriak argia ematen zigularik ekin genion bideari 1990ean. Edo guk Txepetxi ulertu genionari kasu eginez behintzat, behin baino gehiagotan entzun edo irakurri baitut Txepetxen teoriak ez zirela ondoegi ulertu edo aplikatu.

Izateko borondatea da euskararen berreskuratze-prozesuari ekiteko derrigorrean behar den lehen baldintza. Historian zehar milaka hizkuntza desagertu bada ere, euskaldunok hemen darraigu oraindik, temati eta burugogor batzuetan, eta izugarri disfrutatzen beste askotan. Hori gure izateko borondateari esker da, eta elgoibartarrok ere behin baino gehiagotan erakutsi dugu euskaldun izateko daukagun borondatea. 1963an hala erakutsi genuen Elgoibarko Izarra sortu genuenean, eta 1990ean ere berriz azaleratu zen elkarteari desagertzen laga ez genionean.

Eremu Sinbolikoaren nuklearizazioa zen eman beharreko bigarren pausoa. Euskararen alde jarduteko jende asko geneukan inguruan, eta horiek ahal genuen ondoen kudeatu eta antolatu behar genituen. Hasteko, elkartearen arima edo motorra izango zen erdigunea osatzeko jendea behar genuen, eta, horretarako, sentimendua (bihotza), pentsamendua (burua) eta ekintza (eskuak) uztartuko zituen jendearen bila hasi ginen.



Hala, 1992an, elgoibartarron euskararekiko sentimenduak pentsamenduarekin janzteko soziolinguistika-ikastaroa antolatu genuen. 10 ordukoa izan zen, eta neu izan nintzen Txepetxen teoriak gurean zabaltzeko arduraduna (Adorez eta Atseginez Mintegiko lagunak laguntzarekin). Beharbada ez nuke nik esan behariko, baina bi ikastaroei aparteko estimazioa izan zuten: 60 lagun inguruk hartu zuten parte, eta jendea oso gustura geratu zen. Sentimendua eta pentsamendua uztartu zuten 30 lagun inguru azaldu ziren elkartearen erdigunean jartzeko prest; egiten eta eragiten hastea baino ez zitzaigun falta. Motorreko giltzari eman eta abantatu egin ginen.

Euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa sustatzen:

Baina, nondik hasi? Zertan hasi? Aurrerago esan dudan moduan, Udalaren eskariz SIADECOK egin zuen ikerketa-lana izan dugu bidelagun 20 urteotan. Kike Amonarriz eta Iñaki Larrañaga izan ziren gurean egindako lanaren arduradunak, eta haien lagundu ziguten hartu beharreko arrastoak aukeratzen. Gure jarduna Txepetxen teoriak esaten zutenarekin uztartu nahi genuen, eta hala hasi ginen hizkuntzaren berreskurapenean kontuan hartu beharreko hiru faktoreak lantzen. Euskararen **erabilera, ezagutza eta motibazioa** suspertzeko prestatu ditugu 20 urteotako proiektu eta egitasmoak. Hiru faktoreak sustatzea normalizazioari eragitea da, eta horretan ahalegindu gara.

Baina, akaso, euskararen erabilera izan da bigarren etapa honetan gehien landu dugun hizkuntza-faktorea (31). SIADECOKo lagunek esan ziguten moduan, Elgoibarren jendea euskararen alde zegoen, % 66k ezagutzen zuen gure hizkuntza, baina erabilera zen huts egiten zuena. Kanean, adibidez, % 20k baino ez zuen berba egiten euskaraz. Hutsune hori betetzeko helburuarekin ekin genion eguneroko lanari.

Segidan, 1990etik hona prestatu ditugun proiektu eta egitasmoak sailkatuko ditut hiru faktoreak kontuan hartuta. Hori bai, proiektu eta egitasmo gehienetan faktore bat baino gehiago lantzen eta nahasten dira. *Gurean Bai* hitzarmena, adibidez, euskararen erabilera indartzeko proiektua da, baina erabilera sustatzeko hamaika lan egin dugu euskararen ezagutza eta motibazioa ere lantzeko.

(31) Lehen urteetan (1963-1973) euskararen ezagutzan eragitea izan zen elkartearen zeregin nagusia, eta ikastola izan zen proiekturik garrantzitsuen (gau-eskola ere elkartearen arduraren zegoen). 70-80 hamarkadan, berriz, euskararen eta euskal kulturaren erabilera indartu nahi izan zuen dantza- eta txistu-eskolak sortuz, bertsojaritza indartuz, edo Aubixa aterpetxea prestatuz. Azkenik, 80-90 hamarkadan, elgoibartarron euskararekiko sentsibilizazioa edo motibazioa areagotzeko kanpainak prestatzea izan zen orduko ardurarik garrantzitsuen.

Erabilera	Ezagutza	Motibazioa
<ul style="list-style-type: none"> ▪ BARREN astekaria. ▪ elgoiBARREN.net ataria. ▪ Atxutxiamaika. ▪ GAZ-T. ▪ Kuadrillategi. ▪ Kiribilka. ▪ Udal-ekipamenduak: ludoteka, gaztelekua eta Gazte Informazio Gunea. ▪ Gurean Bai Hitzarmena: elkarteak, merkataritza eta ostalaritza. ▪ Toletxe taberna. ▪ Kultur programazioa. ▪ <i>Koloretan</i> mahai-jokoa. ▪ <i>Tertuliak</i> programa. ▪ ... 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Soziolinguistika-hitzaldiak eta ikastaroak. ▪ <i>Euskal Kultura Tradizionala</i> ikastaroa. ▪ Hitzaldiak: Joan Mari Torrealdai, Juan Martin Elexpuru, Jon Sarasua ... ▪ Elgoibarko berbetia: jaso eta eman. ▪ <i>Euskara erreformatuak</i>, txikientzat. ▪ ... 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i>Ez dok amaitu!</i> jaialdia eta omenaldia sortzaileei. ▪ <i>Abendua bertsotan!</i> jaialdia eta omenaldia. ▪ <i>Izarren Hautsa 40 urtean</i> liburua. ▪ Elkartearen 45. urteurrenko programazioa. ▪ Ohitura zaharrak: Olentzero, Santa Ageda eta Sargoateko erromeria. ▪ <i>Euskaldunon Egunkariaren</i> sorrera, eta ixtearen kontrako mobilizazioak. ▪ <i>BERRI</i>aren aldeko ekimenak. ▪ <i>ARGI</i>aren alde. ▪ <i>Bai Euskarari</i> kanpainak. ▪ Ikastolen aldeko jaietarako autobusak. ▪ Kanpainak: euskal ereduen alde; publizitatea euskaraz; euskaldunon eskubideak; alkate-zinegotzi euskaldunak nahi ditugu ... ▪ <i>ARIGERA</i> proiektua. ▪ Gau-eskolako sortzaileari omenaldia /omenaldia euskara ikasle eta irakasleei. ▪ Helduen euskalduntze-alfabetatzearen historia. ▪ Gotzon Garateren omenez. ▪ Pedro Migel Urruzunoren omenez. ▪ ...

Esan bezala, **euskararen erabilera** sustatzeko helburuarekin prestatu ditugu proiekturik *potoloenak*. Motibazioaren ontziko zerrenda luzeagoa bada ere, gure lanaren benetako pisua erabileraren ontzian dago. Hor dago Elgoibarko Izarrak 20 urteotan egin duen lanaren mamia.

Hasteko, komunikabideen arloan zegoen hutsunea betetzeko helburuarekin hasi ginen lanean BARREN astekariarekin. Inguruko herri batzuetan ere antzeko aldizkariak zeuden, eta guk ere beste horrenbeste egin behar genuela erabaki genuen. Hori bai, ez genuen imitazio hutsez sortu aldizkaria. Bagenekien komunikabideek zer pisu duten gizartean, eta konturatu ginen herriaren gaineko informazio gutxi zegoela Elgoibarren (egunkarietako kronikak baino ez). Gainera, ematen zen informazioa gaztelaniaz zen nagusiki (32). Bi hutsune horiek betetzeko helburuarekin sortu genuen BARREN astekaria.

Gero, haur eta nerabeen aisialdia euskalduntzeari ekin genion. Hor ere hutsune handia zegoela esan ziguten SIADECOKoek eta *Atxutxiamaikarekin* hasi ginen gure haur eta nerabeen aisialdi euskalduna eraikitzen. Baina *Atxutxiamaika* hasiera baino ez zen izan; ondoren etorri dira GAZ-T, *Kuadrillategi*, Kiribilka eta udal-ekipamenduak.

Euskararen erabilera areagotzeko hirugarren atal garrantzitsua *Gurean Bai* hitzarmena izan da. Elgoibarko talde sozialetan eragiteko proiektu iraunkorra prestatzea zen helburua, eta bi esparrutan jardun dugu lanean: elkarte eta erakundeetan, eta merkataritzan. Herriko elkarte eta entitateekin hasi ginen, eta helburuetako bat haien eguneroko funtzionamenduan euskara gehiago erabiltzea zen. Autokonpromisoan oinarritzen zen hitzarmena eta elkarte eta erakunde bakoitzak erabaki zuen hitzarmena sinatu ala ez; konpromiso mailak ere bakoitzak hartzen zituen. 59 elkarte eta erakunderi aurkeztu genien hitzarmena eta 51k esan zuten *gurean bai*. 1996an ekin genion proiektuari, eta lan handia egin ondoren, 2003an itxi ziren proiektu horren ateak. 2002ko urtarrilean, berriz, *Gurean Bai-merkataritza* jarri genuen martxan. Dendekin hasi ginen lanean, eta, kasu honetan ere, Elgoibarko denda-munduan euskara gehiago erabiltzea zen helburu nagusia. Dendekin lau urtez lanean jardun eta gero, *Gurean Bai-ostalaritza* jarri genuen martxan 2007an, herriko taberna eta jatetxeetan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin. 15 urte eman ditugu *Gurean Bai* hitzarmenarekin, eta egin ditugun balorazio guztietan argi eta garbi ikusi dugu euskararen erabilerak gora egin duela lan egin dugun sektore guztietan. Hori bai, kezka txiki bat geratu zaigu: Elkarteek eta erakundeek eutsi al zieten hartutako konpromisoari hitzarmena amaitu zenean? Merkataritzako jendeak segituko al du euskara sustatzen *Gurean Baiko* teknikariaren bisitak amaitzen direnean? Batzuek bai, eta bada bilakaera ikusgarria izan duen elkarte edo erakunderik ere; baina beste kasu batzuen konpromisoek behera egin dutela ikusi dugu.

Kultur sustapenari dagokionez, Elgoibarko Izarra kultur elkarte moduan dago erregistratuta, baina bigarren etapan euskalgintzari begira egon dira batez ere elkarteko fokuak. Euskararen normalizazioari kulturgintzari baino kasu gehiago egin diogu. Hasierako urteetan, elkartea txikiagoa zenean (1995-2000), kultur programazio polita geneukan, eta jendeak oso ondo erantzuten zuen, gainera. Baina Toletzeko ateak itxi genituenean, elkarteko kulturgintzak ere behera egin zuen, eta bizpahiru egitasmoarekin eutsi diogu.

Erabilera indartzeko atalarekin amaitzeko, euskara ikasten dabiltzanei edo euskaraz hitz egiteko zailtasuna dutenei eskainitako *Tertuliak* programa daukagu. Horiei lagundu egin behar geniela erabaki genuen programa prestatu genuenean, eta, bere txikian, programari ondo eutsi diogula uste dut (gogoratu 2001etik daukagula martxan programa, eta, batez beste, urtero 28 lagunek hartzen dutela parte).

(32) Euskaldunen portzentajea % 60koa izan arren garai hartan, egunkarietako herri-kroniketan euskarari ematen zitzaion tokia % 5.7koa zen.

Elgoibartarron euskararekiko motibazioa ere landu dugu 20 urteotako jardunean. Esan berri dut elgoibartarrok, oro har, euskararen alde gaudela, baina ez dut uste motibazioaren ontzia bere horretan lagatzeko moduan gaudenik. Euskararen aldeko jarrera hori landu egin behar da, eta horretan ere saiatu gara. Aurretik helburuak zehaztu ez bagenituen ere, egin dugun ibilbideari erreparatu diot eta, batez ere, bi lan-eremutan jardun dugula azpimarratuko nuke: bata, gure aurrekoen lana jaso eta gizarteratzea izan da; eta, bestea, nazio mailako ekimeni laguntzea.

Txostenean zehar ikusi dugun moduan, gure aurrekoen izena eta izana jaso, nabarmendu eta goratzeko helburuarekin hainbat ekimen eta egitasmo prestatu ditugu urteotan. Haiek izan zirelako gara gu, eta ezin diegu bizkarrik eman. Pedro Migel Urruzuno, Pako Juaristi edo Gotzon Garate bezalako elgoibartarrei gure esker ona erakutsi diegu. Elkarteak sortu zutenei eta lehen etapan lanean jardun zuten dozenaka euskaltzaleak ere akorduan izan ditugu. Txalotu egin ditugu garai zailenetan euskara ikasten eta irakasten jardun zutenak. Gure aurrekoen ohitura zaharrei hautsa kendu diegu. Hau dena egin dugu haiei esker garelako. Aurrean dago etorkizuna, bai, baina ezin dugu ahaztu atzetik gatozela.

Bigarren helburua nazio mailatik zetozen sugarrei hauspoa ematea izan da. Laburpen-koadroan ikus dezakezuen moduan, hainbat sutondotan jardun dugu, baina, batez ere, *Euskaldunon Egunkariaren* eta *BERRI*aren bueltan sortutako elkartasun- eta laguntasun-giroa azpimarratuko nuke nik. Inoiz ez bezala jendea biltzeko aukera izan zen *Euskaldunon Egunkariaren* kasuan, eta euskalgintzara jende berria ekartzeko bidea ere izan da.

Amaitzeko, **euskararen ezagutza** lantzeko martxan jarri ditugun egitasmoen kasu egingo diet. Arlo honetan ez dugu lan askorik egin, SIADECOk hala gomendatuta, Elgoibarren badaudelako beste agente batzuk euskararen ezagutza lantzen dutenak (34). Hala ere, badaukagu txikienean euskara ezagutza sustatzeko programa berezia, eta urtero-urtero 5 eta 11 urte arteko 33 ikasle inguru izaten ditugu euskara ikasteko euskara-errefortzuak jasotzen.

Bestalde, aspaldi jarri ginen Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarrenekin harremanetan, eta gure herriko euskara jaso egin behar genuela adostu genuen. Badakigu euskara batua beharrezkoa dela, eta batua ere elgoibartarron euskara da, baina badago gurea bakarrik den euskara. Etorkizunean “*zelakoa zen Elgoibarko euskara?*” bezalako galderarik inork ez egiteko jardun dugu lanean Makazagarekin batera. Lan luzea izan da, baina holakoetan esan ohi den moduan, asko kostatutakoak gustu hobea izaten du. Elgoibarko berbetia zabaltzeko bi ikastaro ere antolatu ditugu (60 lagun inguruk parte hartu zuten), eta hiruzpalau urtean BARRENe txoko bat gorde diogu Elgoibarko berbetiari. Guk eman diogu gurea Elgoibarko euskarari, eta ikusiko dugu zer bide hartzen duen aurrerantzean.


Ezagutzaren atalarekin amaitzeko, uste dut euskara bera ezagutzea bezain garrantzitsua dela euskararen herria (Euskal Herria) ezagutzea. Gure herria dagoen egoeran egonda, euskara ezagutzea ez da nahikoa. Euskara gramatika bat eta hiztegi bat baino askoz gehiago da, eta hau ere ezagutu egin behar dugu. Bigarren etaparen hasieran jardun genuen soziolinguistikari lotutako hitzaldi eta ikastaroak ematen (bai Elgoibarren eta baita Elgoibartik kanpo ere), baina, gerora, helburu horri behar baino arreta gutxiago eskaini diogun errezeloa daukat (azken bi urteotan berriz ere kontu horri heldu badiogu ere, Gotzon Garateren omenez prestatu dugun egitasmoekin). Gure herria ez dugu euskaldunduko jendeak euskaraz badakielako bakarrik (35). Elgoibar euskalduntzeko euskararen aldeko jarrera kontzienteak piztu behar ditugu; euskaldun izateko eta euskaraz bizitzeko borondatea duen jendea lortu behar dugu.

(34) Herriko ikastetxeetan D eredu nagusi da. 1990ean, ikasleen % 36k ikasten zuen D eredu; 2010ean, % 92,15 da eredu horretan matrikulatuta dagoena. Gainera, helduen euskalduntze-alfabetatzeaz arduratzen diren bi euskaltegi ere badaude herrian.

(35) Euskara % 70k ezagutzen du Elgoibarren, baina, adibidez, % 40k baino ez du kalean euskaraz egiten.

Hizkuntz funtzioen berreskurapena:

Txepetxek esan zigun moduan, zazpi dira hizkuntza batek bete ditzakeen funtzioak:



Hizkuntza baten “estatus soziala” hizkuntza horrek betetzen dituen funtzioen baitan dago; zenbat eta gehiago bete, orduan eta estatus sozial altuagoa, eta alderantziz. Euskararen kasuan, baina, nire ustez, goi-mailako estatusak hurrengo baterako laga, eta etorkizuna ziurtatzeko bete beharreko funtzioei erreparatu behar diegu. Eta hemen ez dago eztabaidarik (ala bai?); bi dira bere etorkizuna ziurtatzeko euskarak bete behar dituen gutxieneko funtzioak: identitate-funtzioa eta funtzio nazionala (irakaskuntza, komunikabideak, politikagintza ...). Bi funtzio horiek betetzen ez dituen bitartean, euskararen eta euskaldunon etorkizuna beti egongo da airean.

Hori horrela bada, zazpi funtzio horietatik, zein betetzeko lanean jardun du Elgoibarko Izarrak 20 urteotan?

Identitate funtzioa:

Norbanakoari lotuta dagoen funtzioa da. Gutariko bakoitzaren barruan dagoena; pentsamenduari lotutakoa. Eta ametsi lotutakoa ere bai, Txepetxek zioen moduan. Haren esanetan, amets egiteko erabiltzen dugun hizkuntzak betetzen du bakoitzaren identitate-funtzioa. Bazkide batek esan zidan “*euskararenganako maitasuna herritarrei transmititzea*” izan dela elkartearen lorpenik garrantzitsuenetakoa. Ez dakit, baina, bat natorren iritzi horrekin. Iritsiko ginen, dudarik gabe, bazkide eta elgoibartar batzuen bihotzetara, baina funtzio honi behar baino gutxiago erreparatu diogun sententzia daukat. Hasierako urteetan eman genituen hitzaldi eta ikastaroetan uztartu genituen hizkuntz kontzientziak eta koherentziak; iaz Xamarrek euskal kultura tradizionalaren gainean esandakoek euskal sentimendua indartu digute; gure aurrekoen omenez prestatu ditugun programek eta omenaldiek gure euskal bihotzak biguntzeko balio izan dute; Euskal Herriko bertsolari finalera guk prestatutako autobusean joan ginenok, han bildutako indarraz, grinaz eta poz-taupadaz bueltatu ginen etxera. Baina, nire ustez, gutxitxo izan da 20 urteko ibilbidea izan dela kontuan hartzen badugu. Hori baino gehiago egin behar genuen hain garrantzitsua den funtzioa elgoibartarren artean suspertzeko.

Funtzio familiarra:

Identitate-funtzioaren ondoren datorrena da. Beharbada hau da elkarteak gutxien landu duena. Pertsona baten izaera eta jokabidea, kasu askotan, familian hezuramaitzen da eta norbanakoon hizkuntz portaeran ere antzera gertatzen da. Baina egia aitortu behar badugu, funtzio honi oso-oso kasu gutxi egin diogu. Akaso familia espazio pribatua delako izan da, eta ez gara ausartu elgoibartarren etxeetan sartzen. Hala ere, asko ez bada ere, egin dugu zerbait. *Atxutxiamaika* proiektuan, adibidez, gurasoei zuzendutako euskal kanten eta jolasen ikastaro bat baino gehiago antolatu dugu. *Kiribilka* programa ere, familia-transmisioan eragiteko helburuarekin prestatu genuen, baina aisialdiarekin lotura handiagoa dauka familia-transmisioarekin baino. Azkenik, gurasoentzako apropos prestatutako motibazio-hitzaldiak ere antolatu izan ditugu Udaleko Euskara Batzordearekin batera. Egindakoa hor dago, baina motz geratu garen sentsazioa daukat.

Funtzio profesionala:

Gurean Bai proiektuaren diseinua egin genuenean, lan-munduan ere jardutea aurreikusi genuen, baina, azkenean, ez dugu sektore horretan pausorik eman. Elkarte-erakundeak eta herriko merkataritza euskalduntzeari eman genion lehentasuna, eta lan mundua alde batera lagata izan dugu. Hala ere, Udaleko Euskara Batzordea 2006an hasi zen enpresen munduan eragiten, EMUN kooperatibaren aholkularitzapean, eta gaur egun herriko sei enpresatan daukate euskara-planak (Danobat Taldea, Danobat kooperatiba elkarte, Estarta, Lizardi eta Ideko).

Funtzio lokala:

Hau da, berez, euskara-elkarte bati nagusiki lantzea dagokion funtzioa. Herri mailako elkarteak gara gehientsuenok (bailara mailakoak ere badauden arren), eta funtzio lokala euskararentzat irabaztea dagokigu. Elgoibarko Izarrak ere lursail honetan laga du, batez ere, bere hazia. Herri mailako komunikabide garrantzitsuena euskaraz daukagu; haurren eta nerabeen antolatutako aisialdia ere euskaraz da; herri mailako dozenaka talde sozialetan eragin dugu *Gurean Bai* hitzarmenarekin; herri mailako merkataritza euskalduntzen jardun dugu; eta herriko kulturgileekin jardun dugu lanean. Lan-mundura ez, baina, gainontzean, SIADECOK gomendatu edo aholkatutako herri mailako sektore guztietan jardun dugu lanean 20 urteotan.

Euskararen corpusari dagokionez, berriz, Makazagari esker Elgoibarko euskara jaso eta liburu batean bildu dugu. Euskara batua funtzio nazionala betetzeko bada, hor daukagu Elgoibarko berbetia funtzio lokalerako.

Funtzio nazionala:


Hasieran esan dugu identitate-funtzioa eta funtzio nazionala direla euskarak bere etorkizuna ziurtatu nahi badu bete beharreko funtzioak. Identitate-funtzioa norbanakoari lotutakoa bada, beste aldean dago funtzio nazionala. Hau da, herri edo nazio moduan dagokigun funtzioa da. Euskaldunoi hizkuntz komunitate moduan dagokigun funtzioa. Euskararen etorkizuna ziurtatu nahi badugu, euskarazko hedabideak behar ditugu; hezkuntzak euskalduna izan behar du; administrazioak euskaraz hartu behar ditu herritarrak; politiko euskaldunak behar ditugu legebiltzarrean ... Egia da asko aurreratu dugula, baina egia biribila da, baita ere, asko falta dela euskarak funtzioa nazionala betetzeko. Guk ere egin dugu gure ahalegintxoia Euskararen Herriaren alde. Euskal herriek Euskal Herria elikatu behar dutela sinistuta dihardugu, baina badakigu euskal herriek Euskal Herriaren aterpea behar dutela. Horregatik parte hartu genuen *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera-prozesuan; horregatik irten ginen kalera *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean;

horregatik bildu genituen milaka euro egunkari BERRIA sortzeko. Ikastolen aldeko jaietarako dozenaka autobus ere antolatu ditugu, eta, besteak beste, euskal ereduen aldeko kanpainak ere egin ditugu.

Ikusten duzuen moduan, euskararentzat derrigorrezkoak diren lehen bost funtzioak aitzurtu ditugu. Hori bai, gehien jorratu dugun funtzioa lokala izan da, eta emankorrena ere bera izan delakoan nago.

Mikrokomunitateetan eragiten, Elgoibarko hizkuntza-komunitatea egituratzeko

Herri normalizatu batean hizkuntz komunitateak zelan egituratzen diren erakutsi zigun Txepetxek, eta horretan ere saiatu gara. Talde sozial bakoitzak hizkuntz komunitatean bete behar duen tokiaren eskema aintzat hartuta, saiatu gara gure esku zegoena egiten. Grafikoa ikusiko dugu hasieran, eta elkarteak horri begira egin duena aztertuko dugu ondoren.



- AB:** euskaldun zahar alfabetatuak.
- BA:** euskaldun berri bertakotuak.
- A:** euskaldun zahar alfabetatu gabeak.
- B:** euskaldun berriak.
- O:** erdaldunak.

Oharra: Hitzun-tipologiak izendatzerakoan nire zalantzak izan ditut. Duela 20 urte denok bat egiten genuen haiek definitzerakoan, baina, gaur egun, zalantzan jarri ditu batek baino gehiagok. *Euskaldun berria* terminoak, adibidez, badirudi eman dituela bere onenak (ez naiz hemen eta orain zergatiak azaltzen edo aztertzen hasiko).

AB eta BA talde soziolinguistikoak dira hizkuntzaren eremu sinbolikoa. AB eta BA euskararen arima eta bihotza dira; haiek dira euskararentzat garrantzitsuenak (haientzat euskara garrantzitsua delako).

AB eta BA taldekoak Elgoibarko hizkuntz komunitatearen erdigunean jarri eta taldea handitzen joatea da gure helburuetako bat. Eta helburu nagusia Elgoibarko hizkuntz komunitatea egituratzea bada, gu mikrokomunitateak egituratzen saiatu gara 20 urteotan. Horretarako prestatu genuen *Gurean Bai* proiektua: gure herriko mikrokomunitateak normalizatzeko (edo saiatzeko behintzat). Gure herriko elkarte eta erakundeekin hitzarmenak sinatu genituenean, helburuetako bat euskararen erabilera indartzea zela genion, baina horretarako ezinbestekoa da mikrokomunitateak berrantolatu eta egituratzea. Makina bat batzar egin genituen elkarte eta erakundeetan hizkuntza komunitateak gure ustez zelan egituratu behar ziren azaltzeko. Bestalde, tipo linguistikoak optimizatzen ere saiatu gara eta hamaika ikastaro eta formazio-saio antolatu dugu hitzun-tipologiak hobetzeko (bai A zirenak AB bidean jartzeko, eta baita O zirenak B bidean jartzeko). Beharbada elkarte eta erakundeekin egin genuen lana izan zen garrantzitsuena, baina merkataritzako mikrokomunitateak egituratzeko saiakera ere egin dugu, herriko denda eta ostalariekin.

Eta emaitzak? Zer lortu du *Gurean Bai*k Elgoibarko mikro-komunitateak egituratzeko ahaleaginean? Galdera horri behar bezala erantzuteko beste proiektu bat idatzi beharko nuke. 15 urteko lana dago *Gurean Bairen* atzean, eta proiektu horretan lanean jardun dutenek merezi duten errespetuagatik, ez dut azaleko baloraziorik egingo. *Gurean Bai*ko ateak aurtengo irailean itxiko dira behin betirako; une aproposa izan daiteke proiektu horrek eman duenaren gaineko gogoeta sakona egiteko.


Hizkuntza-komunitateak egituratzeko egin dugun ahalegin serioena *Gurean Bai* izan bada ere, izan ditugu beste programa batzuk Elgoibarko hizkuntza-komunitatea egituratu eta hiztun-tipologiak optimizatzeko. *Tertuliak*, adibidez, (B) tipologiako hiztunak B lortzeko programa da, eta *Arigera* proiektuarekin ere B tipologiako hiztunekin jardun genuen lanean (B asentatzeko eta BA bidean jartzeko). Euskara-errefortzuak programarekin ere beste horrenbeste esan dezakegu; (B) tipologiako umeekin lan egiten dugu kasu honetan.

Amaitzeko, kanpainei erreparatuko diegu, motz-motz bada ere. D ereduaren aldeko kanpainak egin genituen AB eta BA tipologiako gazteak nahi ditugulako Elgoibarren. Badakigu eskolan jasotakoarekin bakarrik ez dela nahikoa, baina eskolakoa ezinbestekoa da. Edo *Alkate eta zinegotzijen ejemplua nahi dugu!* kanpaina egin genuenean, agintari politikoen mikro-komunitatea euskaldunon beharraren arabera egituratu nahi genuela esan genien Elgoibarko alderdi politikoei. Gurean, zorionez, oraindik ez dugu alkate erdaldunik izan.

Herri mailako hizkuntza-komunitatearen artikulazioa:

HUHEZIKo lankidea duzuen Nekane Goikoetxeari esan nion elkarrizketa batean Elgoibarren “*gu*” txiki asko dagoela, baina Elgoibar mailako “GU” handia falta dela. Orain dela gutxira arte *gu* bakarria zegoen tokian (36), orain *gu* txiki mordo bat dagoela (bi euskaltegi, bospasei ikastetxe, Udaleko Euskara Batzordea, bi euskal antzerki talde, Haritz Dantzari Taldea, Elgoibarko Izarra ...). Ezagutzen dugu elkar, bai, eta, kasu batzuetan, elkarrekin ere antolatu izan dugu zerbait; elkarlanean ere jarduten dugu noizean behin. Baina ez gara GU.

Txepetxek herri mailako hizkuntz komunitatearen artikulazioa zelakoa izan behar zuen ere esan zigun (ikus azpiko grafikoan proposatutakoaren eskema txiki bat), baina, orain arte ez dugu ezer ere egin. Akordatzen naiz idatzi nuela zerbait Elgoibarko euskalgintza artikulatzeko, baina elkarteko lagunek ez zuten lehentasunen poltsan sartu. Bien bitartean, bakoitzak bere zilborrari begira dihardu lanean, eta ez gara konturatzen herri mailako gurdiari tira egiteko GU handia behar dugula. Hurrengo puntuan helduko diot berriz ere gai honi.



(36) Elkarteak sortu zutenetako batekin egon nintzen orain dela gutxi, eta esan zidan alderdi politikokoak sortu arte *gu* bakarria zegoela Elgoibarren: euskaldunak. *Gu* eta *besteak* zeudela garai hartan; *gu*, euskaldunak ginen, eta *besteak*, erdaldunak. Haren esanetan, demokraziarekin eta alderdi politikoekin hasi zen euskaldunok osatzen genuen GU handi hori desegituratzen.

8.- Etorkizunari begira

Orain arte atzera begira jardun badugu, atal honetan lepoa bere onera ekarri eta aurrera begira jarriko gara. Elgoibarko Izarraren etorkizuna jasotzeko aintzat hartu beharreko hainbat zutabe aztertuko ditut. Ikus ditzagun denak banan-banan:

- **20 urteotako lanaren balorazio bateratua:**

Etorkizunerako zutabeak jasotzen hasi aurretik oinarriak sendotu behar direla uste dut, eta, horretarako, orain arte egin dugun lanaren balorazioa egingo dugu denon artean. Lan horri nik eman diot hasiera, baina, ondoren, Elgoibarko Izarra osatzen dugun guztiok osatuko dugu (37).

- **Elgoibarko Izarrak etorkizunean bete behar duen funtzioaren gaineko gogoeta:**

Orain arte egindakoaren balorazioa adostu ondoren, elkarteak etorkizunean bete behar duen funtzioa aztertzeari eta eztabaidatzeari ekingo diogu. 2013an 50 urte beteko ditu Elgoibarko Izarrak eta hor daude orain arte egindako bidea eta emaitzak. Baina, zer egin behar du aurrerantzean? Zer funtzio bete behar du Elgoibarko Izarrak hemendik 25 urtera Elgoibar gaur baino euskaldunagoa izateko? Hori da, hain zuzen ere, hausnartu eta erabaki behar duguna. Eta, esan dizuedan moduan, hausnarketa prozesua ez dugu bakarrik egingo. Topagunea ere buru-belarri sartuta dago prozesu horretan, eta haiekin batera egingo dugu bidea. Bide horrek guk nahi eta behar dugun tokira eramango gaituen esperantza daukat.

Elgoibarko Izarrak zer funtzio bete behar duen erabakitzen dugunean, hori zelan egin behar dugun aztertu behar dugu. Puntu asko eta garrantzitsuak daude eztabaidatu eta erabaki beharrekoak, baina badaude gai batzuk bereziki interesatzen zaizkidanak. Barrura begirakoak landuko ditut orain, eta kanpora begirako helburu bat lagako dut amaierarako.

(37) Esku artean daukazuen proiektua azken 20 urteotan Elgoibarko Izarrak egin duen lanaren balorazio pertsonala da. Balorazio hau nirea da, elkartearen inguruan jardun duten langile eta bazkide-militante batzuen iritziak jaso baditut ere. Gero, balorazio hau abiapuntu moduan hartuta, denon arteko balorazioa egingo dugu, eta hori izango da behin betiko balorazioa. Horretarako, oraindik zeharo zehaztuta ez badaukat ere, elkarteko langile eta langile ohiekin egongo naiz; gero, oraingo eta lehengo bazkide-militanteen atea jo nahi dut; hirugarrenik, bazkide batzuegana ere joko dut haien iritzia jasotzeko; eta, azkenik, herritarrengana ere joan behar dut horiek elkartearen lana zelan ikusi duten galdetzera. Prozesu luzea izango da, neketsua ere bai, seguruena, baina egin beharreko lana dela irizten diot. Eta hori dena 2010. urteak azkena eman aurretik egitea lortzen badut, Elgoibarko Izarraren etorkizunaren gaineko gogoeta Topaguneak hasi berri duen gogoeta-prozesuarekin uztartuko dut.

Barrura begirako zereginak:

- **Komunikazioa:** Orain arte baino garrantzia handiagoa eman beharko diogu aurrerantzean komunikazioari. Badakigu eguneroko lanak jaten dizkigula lanordurik gehientsuenak, baina komunikazioak gure jardunaren zentroan egon behar duela uste dut. Eta kontuz, komunikazioa ez baita informazioa zabaltzea bakarrik. Komunikazioa ez da bertso-jaialdiko kartelak prestatu eta 75 lekutan pegatzea. Komunikazioa elkartera datorren langileari nora eta zertara datorren azaltzea da. Komunikazioa bazkide-militanteekin egotea da; haiek ere proiektuko parte direla azaltzea eta sentiaraztea. Komunikazioa bazkideekin harremanetan egotea da, baina ez bazkide-kuota pagatzeko orduan bakarrik. Bazkideak harro eta pozik sentitu behar dute elkarteko kide direlako.

Egitea garrantzitsua da, eta asko egin behar dugu oraindik ere Elgoibar euskalduna izateko, baina, egitearekin batera izatea ere landu behar dugu. Askotan galdetzen dugu zer egiten duen Elgoibarko Izarrak, baina zergatik ez dugu galdetzen zer den Elgoibarko Izarra? Zein da Elgoibarko Izarraren mezua? Idatzita daukagu elkartearen mezua eta izaera jasotzen duen txostena, baina non zegoen ere ahaztuta nuen. Zer egiten dugun esaten eman dugu 20 urte, baina apenas eskaini diogun arretarik zer garen aztertu eta hori komunikatzeari.

Komunikazioa izango da, besteak beste, elkartea trinkotzeko eta egituratzeko erreminta. Eta prozesu hori barrutik kanpora egin behar dela uste dut. Lau geruzatan banatuko ditugu komunikazioaren hartzaileak, eta horietarako bakoitza espezifikoki landuko dugu.



Nire ustez, elkarteko **langile profesionalok** osatu behar dugu elkartearen etorkizuneko motorra. Erdigunean jarri eta elkartea egituratu eta sendotzeko ardura hartu behar dugu. Baina, horretarako, sentimendua eta pentsamendua uztartuko dituzten langileak behar ditugu; informazioa eta formazioa jaso eta elkarteari tira egiteko ardura hartu behar dugu. 22 langile asko dira, eta ondo artikulatuz gero, lan garrantzitsua egiteko moduan gaudela uste dut.

Profesionalen aldamenean, pega-pega eginda, **bazkide-militanteak** ikusten ditut. Baina bazkide-militanteak elkartearen dinamikara erakartzeko bideekin eta estrategiekin asmatu behar dugu. Behin bazkide-militante batek esan zidan moduan, “... *nire ustez jendeak badauka euskararengatik lan egiteko gogoia eta borondatea, baina militante izateko arrazoiak eta helburuak falta dira. Helburu eta zeregin konkretuak eta motibagarriak daudenean, jende asko dago lana egiteko prest*”. Zer pentsatua eman zidaten berba horiek.

Eta beste horrenbeste daukagu **bazkideekin**. Bazkideei, akaso, ez diegu lanerako deitu behar. Izango dira, bai, egin beharreko lanak, eta laguntza ere eskatuko diegu behar denean, baina, nire ustez, Jon Sarasuak bertso honetan ondo dioen moduan, bazkideak Euskararen Jaian parte hartzera gonbidatu behar ditu Elgoibarko Izarrak:

*Zer diosta bizitzak
bizkuntzaren gaian?
Hementxe nabilela
normal bizji nahian,
ez jaio arren oso
epoka lasaian,
suerte bat izan dut
nik nire garaian:
gonbidatu nautela
Euskararen jaian.*

Batzuek aspaldi jaso genuen Euskararen Jaian parte hartzeko gonbitea, eta oraindik ere jaiaz gozaten dihardugu. Zergatik ez ditugu Elgoibarko Izarrako bazkideak Euskararen Jaia gonbidatzen? Elkarte bat ez da indartsua edo osasuntsua bazkide asko dauzkalako bakarrik. Badaude elkarteak oso indartsuak direnak bazkide gutxi izan arren. Daudenak elkarteko kide sentitzea da garrantzitsua; norbera ere proiektu horretako parte dela sentitzea, eta harro egotea horregatik. Baina, horretarako, aurreko 20 urteotan zaindu dugun baino gehiago zaindu beharko dugu bazkideon arteko komunikazioa.

Laugarren geruzan **herritarrak** dauzkagu. Horiengana ere iritsi behar dugu, besteak beste, gero eta gehiago izatea delako gure helburuetako bat. Baina herritarrengana iristeko, aurretik elkartea osatu eta egituratu behar dugu. Izan ere, elkarte bat osatzea ez da bazkide-zerrenda bat egitea. Elkarte bat herritar multzo batek helburu jakin baten alde egiteko bat egiten duenean sortzen da. Eta, momentuz, Elgoibarko Izarrako bazkideok ez dut uste bat eginda gaudenik, bazkide-zerrenda berean bagaude ere. Herritarrak ere Euskararen Jaian parte hartzera gonbidatu behar ditugu eta orduan sentituko dute Elgoibarko Izarrako bazkide izateko desioa. Euskararen Jaian parte hartzeko gogoia piztu behar dugu elgoibartarren artean.

Azkenerako laga ditut **erdaldunak**. Zer egin behar dugu erdaldunekin? Zer mezu zabaldu behar dugu haien artean? Komunitate bakarra osatu nahi dugula da helarazi behar diegun lehen mezua. Nik behintzat ez nuke betiko nahiko gu (euskaldunak) eta besteen (erdaldunak) arteko bereizketa hori. Beharbada haiekin batera hitz egin behar dugu euskararen normalizazioaren gainean. Baina benetako normalizazioaz, eta ez haiek medioetatik jasotzen duten normalizazioaz. Eta gure buruarengan konfiantzarik badaukagu, ulertuko digutela sinistu behar dugu. Gutxienez jakingo dute zertan eta zergatik dihardugun. Hamabost urte inguru egon naiz 15-16 urteko gazteekin hizkuntzen gainean berbetan, eta beti esaten diet Euskal Herriko erdaldunek herri honetako pelikularen zati bat galtzen dutela egunero-egunero. Pelikula ikusi egiten dute, baina ez dute ulertzen. Zergatik ez gara haien aldamenen esertzen pelikula elkarrekin ikusteko? Azpigituluak eskainiko dizkiegu, edo, behar denean, pelikularen zati batzuk itzuli ere egingo ditugu erdaldunek hobeto ezagut gaitzaten. Nahiko nuke 20-25 urte barru erdaldunak gutxi batzuk baino ez izatea Elgoibarren. Eta hori ez dadila izan gurean dauden erdaldunek alde egin dutelako, edota kanpotik hona etortzeko mugak jarri ditugulako. Izan dadila erdaldunek ere bat egin dutelako herri honen euskaldun izateko borondatearekin. Akaso bateren batek pentsatuko du ametsen zurrumbiloen galdu naizela, baina ametsak ere beharrezkoak dira errealitatea aldatzeko.

Gai hau amaitzeko, **informazioari eta formazioari** egin nahi diet lekutxo bat. Informazioa energia da, eta euskara-elkartek energia beharrean daude. Informazioa eta formazioa behar dugu etorkizunean zer egin behar dugun erabakitzeko, eta informazioa/formazioa behar dugu egiten dihardugunaren kontzientzia izateko. Nire ustez, jende gehiegik dihardu euskalgintzan egiten duenaren kontzientziarik gabe, eta, horrek, besteak beste, nekea eta etsipena dakar. Egiten duzuna ondo irteten bada, eutsiko diozu, beharbada; baina krisi garaiak datozenean ondo jantzita egon behar da neguari aurre egiteko. Gurea ez da ehun metroko esprinta, maratoia baizik, eta maratoia amaitzeko asko eta ondo entrenatu behar da. Ondo prestatu behar ditugu langileak; bazkide-militantei azaldu egin behar diegu zertarako behar ditugun elkartean; bazkideek jakin behar dute Elgoibarko Izarrako bazkide izatea kuota ordaintzea baino askoz gehiago dela; eta herritarrek jakin egin behar dute Elgoibarko Izarrak zer funtzio betetzen duen gure herrian. Gai horri ere orain arte baino kasu gehiago egin beharko diogu aurrerantzean.

- o **Profesionaltasuna eta militantzia:** Esan dugu langileek eta bazkide-militanteek osatu behar dutela elkartean erdigunea. Baina, zer leku eta funtzioa bete behar dute batzuek eta besteek? Gai hau askotan egon da euskara-elkarteen mahai gainean, eta aurrerantzean ere hala izango da seguruenik. Baina, gai izango al gara behingoagatik gaiari adarretatik heltzeko? 1990era arte, Elgoibarko Izarran lan egiteagatik oso jende gutxik kobratzen zuen (Ikastolako irakasleek eta, 1976tik aurrera, gau-eskolako irakasleek ere bai), baina 1990ean dedikazio profesionala ezinbestekoa zela erabaki zuen elkartek; eta, nire ustez, erabaki zuzena izan zen gainera. Dedikazio profesionala eta militantea uztartzea zen gure nahia, eta hasierako urteetan lortu genuen arren, proiektuak gehitzen eta hazten joan diren neurrian, langile profesionalak ugaritzen joan dira, eta dedikazio profesionalak gaina hartu dio militantiari. Gaur egun, dedikazio profesionala nabarmen nagusitzen da Elgoibarko Izarran, bazkide-militante fin-finak inguruan badauzkagu ere. Etorkizunean, zelan uztartuko ditugu biak ala biak? Ondo hausnartu beharreko gaia dela irizten diot, eta entzun nahi ditut jendearen iritzia eta gogoetak (bai Elgoibarren, eta baita gainontzeko euskara-elkartean ere).

- **Komunikabideak zertarako?** Zer funtzio bete behar dute gure komunikabideek? BARREnek 18 urte beteko ditu aurtengo abenduaren 24an, eta horri ere iritsi zaio etorkizunean zer izan nahi duen erabakitzeke ordua. Herri mailako informazioa euskaraz zabaltzea da haren eginkizun bakarra, ala beste zerbait ere landu behar du? Herri mailako euskarazko komunikazioa da proiektuaren ardatza, ala elgoibartarron euskaltasuna eta euskaltzaletasuna ere sustatu behar ditugu BARREnetik? Horra gogoetarako beste puntu bat.
- **Zer landu behar dugu haurrekin eta gazteekin? Eta hezitzaileekin?** Haurrak eta Gazteak Arloarekin beste horrenbeste daukagu. Zer balio landu behar ditugu gurera etortzen diren haur eta gaztetxoekin? Haiek aisialdian euskaraz disfrutatzea da proiektuaren arrazoia? Eta hezitzaileekin, zer helburu daukagu gurean lanean jarduten duten hezitzaileekin? Gazteak dira, herrikoak, eta, gainera, aisialdi euskaldunean lan egiteko prest daude. Umeekin eta nerabeekin lan egiteko bakarrik behar ditugu, ala elkartearen proiektua osatzeko *pieza* garrantzitsuak dira?
- **Bideragarritasun ekonomikoa:** Dirua behar da gurea bezalako proiektu bat mantendu eta sendotzeko; diru asko, gainera. Eta urterik gehientsuenetan ondo samar moldatu garela aitortu behar badugu ere, azken urteotan arazo handiak daukagu aurrekontuak parekatzeko. Gainera, mendekotasun handia daukagu diru-laguntzekin, eta autofinantziazio-maila baxua da. Zelan finantzatu behar dugu Elgoibarko Izarra? Zer egin behar dugu proiektu hau ekonomikoki bideragarria izateko? Umetan, dirua zikina zela entzuten nien gurasoei, baina oraingoa ezinbestean zikindu beharko ditugu eskuak.
- **50. urteurrena ospatu!** 2013ak ospakizunetarako urtea izan behar du. Proiektuek bere bidean aurrera egingo dute (besterik erabakitzen ez bada behintzat), baina urte horren erdigunean jaia jarri behar dugula irizten diot. 2012a hartuko dugu zelako ospakizunak antolatu nahi ditugun pentsatzeko, eta, ahal badugu, bazkideekin batera prestatu behar dugu hori dena. 50 urteko historia da ospatu behar duguna, eta historia honetan protagonista asko dago. Horiekin batera prestatu eta ospatu behar dugu Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena.
- **Elgoibarko Izarraren 3. etapari ekin:** 50. urteurreneko ospakizunen atea ixten dugunean, lanean segitu behar dugu. Ordurako erabakita izango dugu zer funtzioa bete behar duen Elgoibarko Izarrak hurrengo urteetan, eta 1990ean egin genuen bezala, hasi egingo gara lanean poliki-poliki. Ez dakit zer gertatuko den, baina Elgoibarko Izarraren hirugarren etaparen atarian gauden susmoa daukat.

Kanpora begirako zereginak:

- **Herri mailako hizkuntza-komunitatearen artikulazioa:** Elgoibarren asko gara euskaldunak eta euskaltzaleak. Eta hamaika gara euskara eta euskal kultura sustatzen dihardugun talde, elkarte, erakunde eta norbanakoak. Baina aurreko puntuan aitatu dudan moduan, bakoitzak bereari begira dihardu, herri mailako ikuspegia ahaztuta. Indar horiek batu, koordinatu eta artikulatu egin behar ditugu, eta uste dut guri dagokigula prozesu horri ekitea. Ondo asmatu beharko dugu artikulazioaren diseinuan (helburuak, estrategiak, lan-metodologia, baliabideak ...) eta asmatu egin beharko dugu, baita ere, hori ondo komunikatzen euskalgintzan eta kulturgintzan diharduten gainontzeko agenteei. Erakundeak, elkarreak, ikastetxeak eta norbanakoak gonbidatuko ditugu, eta GU izateko borondatea dutenekin hasiko gara lanean.

Eginkizunak	Noiz
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 20 urteotako lanaren balorazio bateratua. ▪ Etorkizunean bete beharreko funtzioaren gaineko gogoeta: <ul style="list-style-type: none"> ○ Elkartearen funtzioa. ○ Komunikazioa eta informazioa/formazioa. ○ Profesionalak eta militanteak. ○ Komunikabideak zertarako? ○ Zer landu haurrekin eta gaztetxoekin? Eta hezitzaileekin? ○ Bideragarritasun ekonomikoa? 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2010 (iraila-abendua) ▪ 2011 (urtarrila-abendua)
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 50. urteurrena ospatu! ▪ Elkartearen 3. etapari ekin. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2013 (urtarrila-abendua) ▪ 2014ko urtarrila
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herri mailako hizkuntza-komunitatearen artikulazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2014tik aurrera

9.- Lanbidea ala bizibidea?

Bergarako taberna batean hasi zen hau dena. 1988. urtearen bueltan izango zen, eta ordu txikietan topo egin nuen Eskoriatzako Irakasle Eskolan euskara irakasle nuen Julen Arexolaleibarekin. “*Imanol, ez al haiḡ Bergaran antolatu dugun soziolinguistika ikastarora animatu behar?*”. Akaso ez ziren lekurik eta ordurik aproposenak halako kontu baten gainean jarduteko, baina zerbeza bana eskuetan genuela, luze jardun genuen berbetan. Hurrengo egunean, parrandaren ajeak gainetik kentzea lortu nuenean, zorioneko ikastaroan izena eman behar nuela erabaki nuen.

Sentitu, pentsatu eta egin. Sentimendua, pentsamendua eta ekintza. Hiru elementu horiek osatzen duten hirukia da honen guztiaren muinean dagoena. Euskararekiko sentimendua (bihotza) aspaldikoa da nire kasuan; gurasoengandik jaso dut betidanik. Pentsamenduaren (burua) lursaila, berriz, Bergaran eta Eskoriatzan jorratu nuen eta Adorez eta Atseginez Mintegian bota nuen hazia. Gerora, hamaika mintegi, ikastaro eta bestelakotan jardun dut erretako fruituak zaintzen eta mimatzen (EKT aditu-titulua izan da azkena). Eta hirukia ixteko, egiten eta eragiten (eskuak) ia egunero jardun dut azken 20 urteotan.

Txepetxi entzun nion behin bizitza *hartu-eman*a zela. Hartu eta eman egin behar dugula bizirik egoteko. Hartzen duenak, eman egin behar duela gero; eta eman nahi duenak, aurretik hartu egin behar duela. Hartu bakarrik egiten badugu, baina, itotzeko arriskuan dagoela zioen. Akordatzen naiz, gainera, arnasaren adibidea jarri zigula. Arnasa hartzen jarri gintuen, bota edo eman gabe, eta laster konturatu ginen ez zela adibiderik txarrena esan nahi ziguna ulertzeko. Niri antzerako zerbait gertatuko zitzaidan, itxura denez; asko hartu nuen Bergaran eta Eskoriatzan, eta asko eman zidaten Adorez eta Atseginez Mintegiko lagunek. Hala, Elgoibarko Izarrakoek elkarte desagertzeaz zegoela esan zidatenean, barruan nuena emateko beharra sentitu nuen; ordura arte jasotakoa emateko gogoia.

1990eko uda zen. Elgoibarko Udal Euskaltegian lan egiten nuen, eta lanetik irteten nintzenean joaten nintzen elkartera Elgoibarko Izarra *berria* prestatzera. Uste dut urtebete inguru egon nintzela horrela. Gero, elkarte berreraikitzeke oinarriak gogortu zirela ikusi nuenean, euskaltegiko lana laga eta elkartean zentratu nintzen buru-belarri. Hasieran larri pasatzen nuen bateren batek lana non egiten nuen galdetzen zidan bakoitzean. Bi eta hiru aldiz azaldu behar izaten nien nire lanbidea zein zen, eta, hala ere, gehienek ez zidaten ulertzen Elgoibarko Izarran lan egitea zer zen. Aurpegi arraroak sumatzen nituen inguruan. Batak, “*eta, zer egiten doḡue hor, bada?*”; besteak, “*baina, beste lanen bat ere izango doḡu, ezta?*”. Erantzuna beti bera izaten zen: “*Eḡ, hau da nire lana. Ni Elgoibarko Izarran lan egitetik bizi naiz; ez daukat beste lanik*”.

Hori hasieran izan zen, batez ere, langile profesional bakarra nintzenean. Gero, segituan hasi nintzen lankidez inguratzen; denborarekin gero eta normalagoa zen Elgoibarko Izarrako langile profesionala izatea, bai niretzat eta baita jendearentzat ere. Akaso, baina, gerora ni neu ere konturatu naiz Elgoibarko Izarran lan egitea ez dela lanbide *normala*. 20 urte daramatzat egunero lanera etortzen, eta une txarrak eta oso txarrak bizi izan ditudan arren, hau lana baino zerbait gehiago dela konturatu naiz. *Izarren Hautsa 40 urtean* liburuan idatzi nuen gogoetan nioen moduan, “*Elgoibarko Izarrakoa lanbidea baino bizibidea da niretzat*”. Lana dirua irabazteko modu bat bada, niretzat Elgoibarko Izarra bizitzeko modu bat izan da. Gogoeta hartan nioen, baita ere, pertsona batek bizi ditzakeen emozio eta sentimendu gehienak ezagutu ditudala Elgoibarko Izarran 20 urteotan. Izugarri disfrutatu izan dut elkarteko lankide eta lagunekin planak egiten; estresak baten baino gehiagotan egin dit atzaparka; malkoren batek ihes egin dit lankideren batek agur esan

digunean; emozioak gainezka egiten dit Santa Ageda bezperan baserriren baten atarian salbea kantatu behar dugunean; bihotza biguntzen zait omenaldiren bat ondo irteten zaigunean; urduri egoten naiz, oraindik ere, BARREN ostiraletan eskuetan hartzen dudanean; haserretu egiten naiz gauzak nahi bezala irteten ez direnean; tentsioak gainezka egin dit lankideekin mahai baten bueltan elkartu eta aurrekontuak borobildu ezinik egon garenean; lur-jota geratu nintzen Toletxe proiektuak aurrera ez zuela egingo konturatu nintzenean. Dena eman diot eta dena bueltatu dit.

Zerbait nabarmendu beharko banu, baina, jendea izan da urteotan gehien bete nauena. Inguratuta egon naiz; elgoibartarrak izan dira gehienak, baina Elgoibartik kanpoko jende asko ere ezagutu dut. Zenbat gutun hari eta honi, hasierako urte haietan; zenbat telefono dei; zenbat batzar; azken urteotan, berriz, e-mailen joan-etorria etengabekoa izan da. Gaur, nik baino gehiago zekitenei entzuten; bihar, norberak baino esperientzia gutxiago zuenari azalpenak ematen. Ehunka atetan jo dut aldaba, eta banaka batzuetan bakarrik geratu da atea zabaldu gabe. Oso babestua eta estimatua sentitu naiz uneoro, eta hori ez dakit sekula eskertuko didan Elgoibarko eta kanpoko lagunei.

Askotan galdetu didate zelan daramadan hainbeste urte Elgoibarko Izarran. Ez omen dago nirea bezalako kasu asko euskara-elkarteen mugimenduan. Izan ditud, bai, beste lan batzuetan jarduteko eskaintzak, baina beti pentsatu izan dut hemen baino hobeto ez naizela inon egongo. Herrian bertan egiten dut lan, eta gure-gurea den horren alde dihardut. Gure alde, azken finean. “*Euskara ala ezkara*” zioen Gotzon Garate zenak, euskararik gabe ezer ere ez garela esateko, eta nik ere, berak bezala, *euskara* erabaki dut.

20 urte pasa dira eta ordutik ez naiz Bergarako taberna hartara bueltatu. Baina hango kea eta giroa oraindik ere gure artean daudela sentitzen dut. Zuen baimenarekin, hozkailura joan eta zerbeza bat irekiko dut 20 urteotan euskararen sokan lagun izan zaituztedan guztiongatik topa egiteko. Asko jaso dut zuengandik, eta, zerbezaren aparra ezpainetan dudala, **ESKERRIK ASKO** esan nahi dizuet.

10.- Eranskinak

- 1) *Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte* (1963-2003) *Izarren Hautsa 40 urtean* liburua.
- 2) Elgoibarko Izarra *berriaren* aurkezpenerako gonbite-orria.
- 3) *Hizkuntza ekologia* gutuna.
- 4) *Ez dok amaitu!* jaialdiko bideoa.
- 5) BARRENen astekariaren sorrera-txostena.
- 6) BARRENen astekariaren estreinako alea.
- 7) *Elgoibarko haurren euskalduntze-prozesuaren oinarri teorikoak* txostena.
- 8) Udalarekin sinatutako estreinako hitzarmena.
- 9) *Elgoibarko azterketa soziolinguistikoa. Euskararen presentzia gizarte bizitzan, laburpen-txostena.*
- 10) *Izarren Hautsa* berripapera (lehen eta azken zenbakiak).
- 11) *Laiotz* literatur aldizkaria.
- 12) *Alkate-zinegotzien ejemplua nahi dugu!* kanpainaren euskarri-orriak.
- 13) *Elgoibarko Izarrari buruzko ikerketa soziologikoa*, laburpen-txostena.
- 14) *BARREN astekariaren azterketa soziologikoa*, txostena.
- 15) *Gurean Bai* - elkarteak eta entitateak, diagnosis eta sorrera-txostena.
- 16) Elgoibarko Izarrako langile profesionalen gaineko filosofia-txostena.
- 17) *Atzera begira aurrera egiteko(1991-1996)* txostena.
- 18) *Dudaripe!* kanpainako komikiak (BARRENen argitaratuak).
- 19) Elgoibarko Izarraren *nortasun-agiria*: helburuak, filosofia, ezaugarriak ...
- 20) *Erretratu zaharrak* liburua.
- 21) Pedro Migel Urruzunoren omenez prestatutako programa.
- 22) *Euskaldunon eskubideak* sentsibilizazio-kanpainako euskarri-orriak (BARRENen).
- 23) *Hamaika Litera* literatur aldizkaria.
- 24) *Toletxe* proiektuaren sorrera-txostena eta Barne Araudia.

- 25) *Arigera* proiektuko gogoeta, sorrera-txostena eta memoria.
- 26) *Helduen euskalduntze-alfabetatzea Elgoibarren (1956-2000) 44 urteko historia* liburuxka.
- 27) Euskara ikasten eta irakasten jardun zutenei omenaldia (BARRENEko gehigarria).
- 28) *Gurean Bai* merkataritza-hitzarmenaren sorrera-txostena.
- 29) BARRENEen 10. urteurrenari eskainitako gehigarri berezia.
- 30) Elgoibarko Izarraren Barne Araudia.
- 31) Gurean Bai-merkataritzako balorazio-txostena.
- 32) Andres Gostin kazetariak egindako BARRENEen kalitate-azterketa.
- 33) Pako Juaristiri omenaldia (bideoa), eta gehigarri berezia (BARRENEen).
- 34) *Kuadrillategi* proiektuko sorrera-txostena.
- 35) Gurean Bai ostalaritza-hitzarmenaren sorrera-txostena.
- 36) *Elgoibarko euskara, berbak, egiturak eta irakurgaiak* liburua.
- 37) *Elgoibar bertsotan!* afari-jaiaren bideoa eta Gabonetako bertso-jaialdiari eskainitako gehigarri berezia BARRENEen.
- 38) Elgoibarko Izarraren 45. urteurrenari eskainitako gehigarri berezia BARRENEen.
- 39) *Bazkide bat asko delako ... bazkide-kanpainako* gehigarria.
- 40) Gotzon Garateri BARRENEen eskainitako gehigarri berezia.
- 41) *Elgoibar KOLORETAN* mahai-jokoa.
- 42) Herri-omenaldia Gotzon Garateri (bideoak eta gehigarria BARRENEen).
- 43) BARRENEen gaineko ikerketa soziologikoa (laburpen-gehigarria).
- 44) BARRENEen Estilo Liburua.
- 45) 20 urteotako errepasso fotografikoa (powerpointa).
- 46) Bazkide-militanteen zerrenda.
- 47) Langile profesionalen zerrenda.
- 48) Aisialdiko hezitzaileen zerrenda.

*“Inork ez zidan esan
euskaldun izatea zein nekeza den,
hobe nuela hautatzea
munduko herritar izatea.”*

Nekeza da, bai, euskaldun izatea, baina munduko herritar izateko modurik naturalena delako izan nahi dugu.

Imanol Larrañaga Juaristi
Elgoibarren, 2010eko maiatzean

Proiektu honen gainean iritzia eman edo zerbait esan nahi baduzue, idatzi eta aintzat hartuko ditut zuek esandakoak. Eskerririk asko.

E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com
Telefonoa: 943 741 626

Diseinua eta digitalizazio-lanak: Leire Rubio